

UPV/EHUko ikasleak irakaskuntza-praktikako subjektu

IIEB aholkuen dokumentua

GIEB



 Koadernoak

Koadernoaren izenburua (aurrealdea):
UPV/EHUko ikasleak
irakaskuntza-praktikako subjektu

Koadernoaren izenburua (aurrealdea): UPV/EHUko ikasleak irakaskuntza-praktikako subjektu

Gizakiekin eginiko irakaskuntza-praktiken alderdi etikoak eta ebaluazioa

IIEB aholkuen dokumentua

UPV/EHU

2013

Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordeak (GIEB) landutako dokumentua eta Isabel López-Abadiák idatzia*

* Isabel López-Abadía: Medikuntzan doktorea. Zuzenbidean lizentziaduna. Lege eta Auzitegiko Medikuntzako Irakasle Titularra. Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Espezialitate Mediko-Kirurgikoen Saileko zuzendaria. UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzako GIEBko kidea.

eman ta zabal ezazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Leioa, 2014ko martxo

IIEB koadernoak

Ikerketaren arloko Errektoreordetza

Koordinatzailea: Mabel Marijuán
Dolores Ruiz (Arg.)

CEID@ehu.es

Dokumentu honek Creative Commons lizentzia du: Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 3.0 Unported.

© Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua

ISBN:

Lege-gordailua:

Aurkibidea

1. Hitzaurrea	00
2. Atarikoa	00
3. Aldez aurretik jakin beharrekoak.....	00
3.1. UPV/EHUko IIEBren onespena.....	00
3.2. Nork aurkeztu behar du dagokion batzordearen aurrean ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktika edo -proiektu bat, hark ebaluatu ahal izateko?	00
3.3. Irakaskuntza-praktikak proposatzeko baldintzak	00
4. Alderdi orokorrak	00
4.1. Helburuak/gaitasunak	00
4.2. Metodologia.....	00
4.3. Ebaluazioa	00
5. Alderdi gatazkatuak ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktiketan	00
5.1. Arriskua / onura	00
5.1.1. Arriskua / onura haztatzea.....	00
5.1.2. Arriskuaren sailkapena	00
5.1.3. Arrisku-motak	00
5.1.4. Arriskua minimizatzea.....	00
5.1.5. Kalte-ordaina.....	00
5.2. Boluntarotasuna.....	00
5.2.1. Jarduera alternatiboak.....	00
5.3. Informazioa eta baimen informatua.....	00
5.3.1. Informazioa	00
5.3.2. Baimen informatua (BI).....	00
5.4. Pribatutasuna eta konfidentziasuna	00
6. Ikasleekin edo haien lagin biologikoekin edo datu pertsonalekin eginiko praktika-motak	00
6.1. I. taldea. Jarduera-motaren arabera	00

6.2. II. taldea. Tutoretza-mailaren arabera.....	00
6.2.1. Tutoretza zorrotza behar duten praktikak.....	00
6.2.2. Maila ertaineko tutoretza behar duten praktikak.....	00
6.2.3. Tutoretza txikia behar duten praktikak	00
6.3. III. taldea. Praktikaren subjektu aktiboaren eta pasiboaren arabera.	00
6.3.1. Irakasle-ikasle praktika (IR-IK).....	00
6.3.2. Nork bere buruarekin eginiko praktika (IK).....	00
6.3.3. Inter pares praktika (IK-IK).....	00
6.3.4. Hirugarrenekin eginiko praktika (IK-H).....	00
7. Aholku orokorrak	00
7.1. Baliabide materialak eta giza baliabideak: nahikoak eta egokiak.....	00
7.2. Ikasleen aldez aurreko prestakuntza.....	00
7.2.1. Prestakuntza tekniko orokorra.....	00
7.2.2. Prestakuntza tekniko espezifikoak.....	00
7.2.3. Prestakuntza etikoa eta lege-prestakuntza	00
8. Aholku espezifikoak	00
8.1. Irakasleek ikasle batekin eginiko praktikak, beste ikasleak begira daudela.....	00
8.1.1. Arriskua/onura.....	00
8.1.2. Badaezpadako neurriak	00
8.2. Nork bere buruarekin eginiko praktikak	00
8.2.1. Arriskua/onura.....	00
8.2.2. Badaezpadako neurria	00
8.3. Inter pares praktikak	00
8.3.1. Arriskua/onura.....	00
8.3.2. Badaezpadako neurriak	00
8.4. Hirugarren pertsonekin eginiko praktikak.....	00
9. Aholkuen laburpena	00
9.1. Ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktika guztietarako aholkuak	00
9.1.1. Praktikaren diseinua	00
9.1.2. Ikasleen parte-hartze zuzenaren egokitasuna	00
9.1.3. GIEB batzordeak irakaskuntza-praktika onartzea.....	00
9.1.4. Baliabide materialak, giza baliabideak eta prestakuntza-baliabideak egokitzea.....	00
9.1.5. Baliabide materialak: nahikoak eta egokiak: lokalak eta altzariak, material segurua, etab.....	00
9.2. Aholku espezifikoak praktika-motaren arabera	00
9.2.1. Praktikaren subjektu aktiboaren eta pasiboaren arabera.....	00

10. Praktikaren balorazioa etika-batzordean.....	00
11. Erreferentzia bibliografikoak	00
I. ERANSKINA: Gizakiekin (UPV/EHUko ikasleak) eginiko irakaskuntza- praktikei buruzko txostena, GIEBrentzat	00
II. ERANSKINA: IIEB batzordeen bileran ateratako ondorioak, UPV/ EHUko ikasleekin egindako irakaskuntza-praktikei eta ikerketa-ebaluazioari buruzkoak (2012-05-31)	00
III. ERANSKINA: 1 eta 2 ereduak	00
1. eredua: Informazio-orria eta baimen informatua, UPV/EHUren PAZko la- guntza eta praktiketarako	00
2. eredua: informazio-orria eta baimen informatua garatzeko proposamena, UPV/EHUren klinika odontologikoko laguntza eta praktiketarako	00

1. HITZAURREA

IIEB koaderno hau 2012ko azaroan argitaratu zen «UPV/EHUko ikasleak ikerketa-subjektu» koadernoarekin batera argitaratzeko asmoz diseinatu zen, eta paralelismo handiak daude ondorioz bien artean. Hain zuzen, hasierako izenburua honako hau zen: «UPV/EHUko ikasleak ikerketa eta irakaskuntza-praktikako subjektu. Aholkuen dokumentua». Gainera, bi atalek (ikerketa eta irakaskuntza-praktika) eskema berbera erabiltzen zuten, irakurketa errazteko.

Dokumentuaren bigarren zati honen argitalpena urtebete baino gehiago atzeratu bada ere, errespetatu egin dugu Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordeak (GIEB) erabili zuen formatu originala, eta, horrekin batera, «UPV/EHUko ikasleak ikerketa-subjektu» dokumentuan erabilitako eskema. Urtebete igaro denez, kontuan izan behar da irakaskuntza-praktika ebaluatzeko proposatzen den inprimakia (ikus koadernoaren amaieran) gaur egun batzordeak helburu horretarako erabiltzen duena dela.

I. eranskinean, UPV/EHUko hiru etika-batzordeek dokumentua onartzean egin zuten bileratik ateratako ondorioen laburpena jasotzen da. Bilera horren helburu nagusia hauxe izan zen: unibertsitate honetako irakasleek gizakiekin egiten dituzten irakaskuntza-praktikak GIEB batzordearen ebaluaziopean jartzeko modurik egokiena aurkitzea.

II. eta III. eranskinak, aldiz, batzordeari aurkeztu zaizkion irakaskuntza-praktikei buruzko dokumentuak dira. Uste dugu erabilgarriak izan daitezkeela, UPV/EHUK bere kideei eta oro har gizarteari eskaintzen dizkien asistentzia sanitarioko zerbitzuetatik biri dagozkiolako, eta barne hartzen dituzte gizakiekin eginiko irakaskuntza-praktika nahiz ikerketa.

Gaur egun, indarrean dagoen legediaren arabera, gizakiekin egiten diren irakaskuntza-praktikek ez dute etika-batzorde baten onespenez behar, ikerketa-proiektuen kasuan ez bezala. Dena dela, gure unibertsitateak eskaintzen duen irakaskuntzaren kalitateak kezkatzen gaituenez,

gure betekizuna da praktika horiek irizpide metodologikoak, etikoak eta legezkoak betetzen dituztela ziurtatzea. Horrela, azken bi eranskinen orientazio modura balio dezakete era honetako praktikak eskaini nahi dituztenentzat, eta baita gogoratzeko ere IIEB batzordea prest dagoela era honetako kontsultetarako eta, irizpide metodologiko, etiko eta legezkoen arabera, gizakiekin eginiko irakaskuntza-praktikak (eta animaliak, agente biologikoak eta genetikoki aldatutako organismoak erabiltzen dituztenak) lantzen edo aldatzen laguntzeko.

Leioa, 2013ko azaroa

2. Atarikoa

Aurreko dokumentu batean ikasleak ikerketa-subjektu modura aztertu ondoren (ikus IIEB koadernoak: «UPV/EHUko ikasleak ikerketa-subjektu»), ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktiketara joko dugu orain antzeko balioen aplikazioa aztertzeraz.

Zehazki, irakaskuntza-jarduerak hots, ikaslea, haren lagin biologikoak edo datu pertsonalak ikasle horren edo ikaskideen prestakuntza-xedeetarako erabiltzen dituzten praktikak. Era honetako praktikak ohikoak dira gure irakaskuntza-lanetan, batik bat prestakuntza biosanitarioan. Adibidez, proba analitikoak izan daitezke (odol-taldea), ikasle batek beste bat auskultatzea, odol-presioa neurtzea, hainbat maniobra egitea (*Heimlich* maniobra, esaterako), detartrajeak (aho-garbiketa), etab. Gauza bera gertatzen da proba psikikoetan: hala nola test kognitibo jakin batzuen aplikazioa, nortasunari buruzko galde-sortak...

Aholku hauetatik kanpo utzi ditugu prestakuntza-helburu zuzenik ez duten jarduerak. Kasu horietan, asmoa izan ohi da ikerketa baten emaitzak edo haren zati bat (adibidez, bideo-grabazio bat) ikerketa amaitu ondoren erabiltzea, irakaskuntza-xedeetarako. Halakoetan, baimen espresua eskatu behar zaie parte hartu duten guztiei, materiala irakaskuntza-helburuekin erabiltzeko, eta badaezpadako neurriak hartu behar dira pertsonen nortasuna babesteko (ez identifikatzeko). Bideo-grabazioa egin edo lagin edo datu zehatzak hartu aurretik, ikerketa-proiektu baterako den jakinaraziko da, eta baimen idatzia eskatu. Aldiz, irakaskuntza-helburuetarako denean, baimen independentea eskatu behar da.

Ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktiketan sortzen diren arazoak ikerketan sortzen direnen antzekoak dira, bereziki ikasleen prestakuntzaren parte modura hartzen diren proiektuetan. Hain zuzen, proiektu horiek, irakaskuntza-praktikak bezala, prestakuntza-helburu bat betetzera bideratuta daude, eta onuragarri dira, beraz, ikasleentzat.

3. Aldez aurretik jakin beharrekoak

3.1. UPV/EHUko IIEBren onespena

Irakaskuntza-jardueraren kalitatea egiaztatzeko, komenigarria litzateke etika-batzordeek gizakiekin (UPV/EHUko ikasleak izan edo ez) egiten diren praktika guztiak ikuskatzea, ikasleen laginak edo datu pertsonalak, animaliak, agente biologikoak edo genetikoki aldatutako organismoak erabiltzen dituztenak barne.

Ikasleak subjektu pasibo gisa erabiltzen dituzten jardueren kasuan, irakaskuntzaren alorrean egonik eta ez ikerketarenean, EZ dira aplikatu behar gizakiekin eginiko ikerketan erabiltzen diren arau orokorrak. Kasu honetan, babes-beharra txikiagoa da, rolak alderantzikatu egiten baitira: ikasleak dira praktikaren onuradun nagusiak eta ez irakasleak (ikerketan aurkakoa gertatzen da). Hala eta guztiz ere, irakaskuntza-praktika batek gizakiak erabiliko balitu, GIEBren onespena beharko luke, eskakizun metodologikoak, etikoak eta legezkoak betetzen direla ziurtatzeko, eta irakasleari segurtasun handiagoa emateko (prozedurak egoki planteatzeari dagokionez). Gainera, komenigarria litzateke ere ikasleen ordezkariak batzordean egotea, beren iritzia emateko, unibertitate batzuetan jada gertatzen ari dena, ikasleak subjektu pasibo gisa erabiltzen dituzten ikerketa-proiektuen kasuan bereziki.

GIEBren ebaluazioa gorabehera, egokia litzateke ere, kasuen arabera, beste batzorde batzuetara jotzea (AOEB edo ABIEB). Izan ere, gizakiekin eginiko irakaskuntza-praktikak ez bezala, animaliak, agente biologikoak edo genetikoki aldatutako organismoak erabiltzen dituztenak zorrotz araututa daude, araudi espezifiko baten bidez, eta dagokion batzorde edo erakundeak kontrolatzen ditu.

3.2. **Nork aurkeztu behar du dagokion batzordearen aurrean ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktika edo -proiektu bat, hark ebaluatu ahal izateko?**

Ikerketa-proiektuen kasuan, Ikertzaile Nagusiak aurkeztu behar du.

Irakaskuntza-praktiken kasuan, irakasgaiaren ardura duen irakasleak edo praktikaren arduradunak (irakasle hori ez denean).

Irakaskuntza-praktika batzordean aurkeztu aurretik, dagokion **Saileko Kontseiluaren onspena** lortu behar da, sailak direlako, azken batean, beren irakasleen irakaskuntza teorikoaren eta praktikoaren gaineko erantzukizuna dutenak.

3.3. **Irakaskuntza-praktikak proposatzeko baldintzak**

Ikasleak subjektu pasibotzat hartzen dituen irakaskuntza-jarduera bat proposatu aurretik, oinarrizko premisa batzuk hartu behar ditu kontuan irakasleak:

- Helburu nagusiak ikasleen prestakuntza izan behar du; hau da, dagokion ikasketa-planeari jasotako gaitasunen baten garapena.
- Gaitasun hori lantzeko, irakaskuntza-metodologiak egokiena izan behar du.
- Ikasleen parte-hartzea behar ez duen eta antzeko helburuak betezen dituen beste mota bateko praktikan egonez gero, praktika horrek izango du lehentasuna (beste horrenbeste animaliak edo agente biologikoak erabiltzen dituzten jardueretan).

4. Alderdi orokorrak

4.1. Helburuak/gaitasunak

Oinarrizko premisa da.

Proposatzen den jarduerak prestakuntza-helburu bat izan behar du; hau da, ikasleek gaitasun jakin batzuk eskuratzea. Horregatik, hauxe da lehen urratsa. Hots, ez da proposatu behar baldintza hau betetzen ez duen era honetako jarduerarik (ikasleekin edo ez); irakaskuntza-praktika modura ez, behintzat.

4.2. Metodologia

Praktikaren diseinua oinarrizko faktorea da helburuak betetzeari begira. Diseinu horretan, funtsezkoak dira ikaskuntzara bideratutako sormena eta eskura dauden baliabideen kudeaketa egokia: denbora, ikasle-kopurua, irakasle-kopurua, lokalak, materiala, koordinazioa beste sail eta irakasgai batzuekin, etab. Gaizki diseinatutako praktikak ez du betetzen bere eginkizuna, eta distortsioak edo gatazkak sortzen ditu. Faktore asko hartu behar dira kontuan atal honetan, zirkunstantzien arabera. Adibidez, beste sail batzuekiko koordinazio desegokia duen praktika batek bereak ez diren espazioak eta denbora okupatu ditzake, kalte eginez beste irakasgai bati. Ikasle-kopuruaren kalkulu oker batek, denbora erabilgarriari dagokionez, praktikak egin ezinik utz ditzake ikasle horietako batzuk. Gainbegirale bakoitzeko gehiegizko ikasle-kopurua ikasleari eskaintako arretaren kalterako izan daiteke. Azkenik, ikasleen maila akademikorako konplexuegiak edo sinpleegiak diren prozedurak diseinatzek hutsean utz ditzake ikaskuntza-itxaropenak.

Aurreko paragrafoan aipatutakoak kontuan hartu beharreko adibideak dira metodologikoki egokia den irakaskuntza-praktika bat diseinatzeke orduan.

4.3. Ebaluazioa

Ebaluazio-sistemak egokia izan behar du proposatzen den jarduera -motarako; irakasgaiaren kalifikazio globalari dagokion portzentajeak, aldiz, proportzionala eginiko lanari eta landutako gaitasunaren garrantziari dagokienez. Garrantzitsua da ikaslea nola ebaluatuko den adieraztea aldez aurretik, prestakuntza-programaren barnean egingo dituen praktikei dagokienez.

Irakaskuntza-praktika bati lotutako alderdi orokorretan (helburuak/gaitasunak, metodologia eta ebaluazioa), kontuan hartu beharko lirateke Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak¹ erabiltzen dituen irizpideak, ebaluazio-mota hau egitean parametro berberak era kongruentean erabiltzeko unibertsitatearen organoetan.

¹ Irakaskuntza Ebaluatzeko Zerbitzua. sed@ehu.es

5. Alderdi gatazkatsuak ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktiketan

Alderdi orokorrak gorabehera (irakaskuntza-praktika metodologikoki ondo diseinatuta egotea eta gaitasun jakin batzuk eskuratzeko helburua izatea), funtsezko alderdi bat hartu behar da kontuan ikasleak subjektu pasibotzat dituen jarduera batek ikuspegi etikotik sor ditzakeen arazoak saihesteari begira: arriskuaren balorazioa.

Jardueraren arriskua baloratzeko moduak gainerako arazoak baldintzatuko ditu. Izan ere, ikuspuntu guztietatik arrisku minimoa duen jarduera bat diseinatzen bada, irakaskuntza-helburu egoki batzuen arabera ondo diseinatu den beste praktika-mota baten modu berean tratatu beharko litzateke, eta ez modu desberdinean.

5.1. Arriskua / onura

5.1.1. *Arriskua / onura haztatzea*

Analogiaz, gizakiekin eginiko ikerketan erabiltzen diren haztapan-irizpide berberak aplikatuko ditugu.

5.1.2. *Arriskuaren sailkapena*

Arriskua bi eratan sailkatu ohi da: minimoa edo minimotik gorakoa².

² Arrisku-sailkapenek hainbat aldaera dituzte. Batzuek «arrisku gabea» maila ezartzen dute (beraz, ez da beharrezkoa etika-batzordearen kontrola); beste batzuek bi mailatan banatzen dute minimotik gorako arriskua: 1. maila («minimoa baino pixka bat handiagoa») eta 2. maila («minimoa baino dezente handiagoa»).

- Arrisku eta karga minimoak: probabilitateari edo magnitudeari dagokionez, ohiko jardueran espero dena gainditzen ez duena, errutinazko azterketa fisikoak edo psikologikoak barne³.
- Minimotik gorakoa: kalte fisikoa, psikologikoa edo pribatutasun edota konfidentzialtasunaren urratzearekin lotutakoa gertatzeko aukera ohiko jardueran espero dena baino handiagoa denean⁴.

Normalean, soilik onartzen dugu arrisku minimoa populazio erasagarri edo arrisku-populazioarekin lan egiten dugunean, eta ikerketak onura zuzenik ekartzen ez dionean parte-hartzaileari.

Irakaskuntza-praktiken kasuan, onura zuzena espero bada ere parte-hartzailearentzat (gaitasunak eskuratzea), ikasleak talde erasagarriatzat har litezke ikasle/irakasle erlazioaren barnean, gutxiagotasun-egoerari daudelako erlazio bertikal batean. Horregatik, arrazoizkoa da arrisku minimoa exijitzea, eta minimotik gorako arriskua aurreikusten bada, maila onargarri batera murrizteko modua aurkitu beharko litzateke.

Arrisku minimoaren balorazioaren arazo nagusia kontzeptuaren beraren subjektibitatea da:

- Ez dago irizpide objektiborik eguneroko bizitzako arriskuari buruz. Adibidez, ibilgailuak gidatzearen arriskua aipatuko bagenu, norberaren zirkunstantzien arabera dela har liteke argudiotzat (lanbidea, bizilekua eta beste hainbat faktore).
- Errutinazko azterketa fisiko edo psikikoei dagokienez, ez dago argi ere zer sartzen den kontzeptu horien barnean.

Horregatik, adibideen bitartez zehaztuko dugu GIEB batzordeak orain arte minimotik gorako arriskutzat hartu izan duena, batzorde horren baloratzeko moduari buruzko argibideak emateko irakasleari.

Kontuan izan behar da parte hartuko duten pertsonen arabera baloratzeko delako beti jarduera praktikoa mota bakoitza. Prozedura batek arrisku minimoa edo minimotik gorakoa izan dezake, xede-populazioaren

³ More than minimal risk exists when the possibility of physical or psychological harm or harm related to breach of confidentiality or invasion of privacy is greater than what is typically encountered in everyday life

⁴ More than minimal risk exists when the possibility of physical or psychological harm or harm related to breach of confidentiality or invasion of privacy is greater than what is typically encountered in everyday life

arabera. Adibidez, esfortzu-proba baten kasuan, erraz ulertzeko moduko da ez dela gauza bera proba hori pertsona osasuntsu batekin egitea edo kardiopatia bat duen beste batekin egitea, eta badaezpadako neurriak ez dira berdinak izango. Unibertsitateko ikasleek, ikerketa edo irakaskuntza-praktika bateko subjektu gisa, populazio gazte, osasuntsu eta arrisku txikikoa osatzen badute ere, kontuan izan behar da denek ez dituztela ezaugarri horiek betetzen.

5.1.3. **Arrisku-motak**

Oro har, lau motatako arriskuak daude: fisikoa, psikikoa, pribatutasuna edo konfidentzialtasuna urratzea, eta talde erasagarrien edo arrisku-taldeen arrisku espezifikoak.

1. Arrisku fisikoa

- Ariketa fisikoa egiteak eragindako arriskua: erorketa, lesioa, gehiegizko ahalegina, etab.
- Substantzien erabilerak eragindako arriskua: intoxikazioa, erreakzio alergikoa, infekzioa, etab.
- Prozedura fisiko inbaditzaileak eragindako arriskua (lagin biologikoak hartzearekin lotzen da maiz). Inbaditzailetzat hartzen dira, adibidez, endoskopiak edo zain-ziztadak; ez, ordea, laginak hartzeko azaleko prozedurak edo kanpoko detektatzaileen aplikazioa (ECG, EEG...).

2. Arrisku psikikoa

- Prozedura psikiko inbaditzaileak eragindako arriskua.⁵ Inbaditzailetzat hartzen dira, adibidez, estres edo arrisku emozional handia eragiten duten probak (hala nola gertaera pertsonal traumatikoak berpiztea), edo gai minberak erabiltzen dituztenak. Gai horiek, arrisku psikikoan ez ezik, hurrengo atal zabalagoan ere sar daitezke, pribatutasunaren urratze-arriskuari buruzkoa, arrisku psikikoaz gainera lege-arriskua, arrisku soziala, ekonomikoa... ere barne hartzen dituena.

⁵ Hemen, edo konfidentzialtasunarekin lotutako arriskuaren atalean, batzuek «gizarte-arriskua» deritzotena sarten da, gizartearen arbuioa eragiten duten gaiak ukitzen direlako: droga-kontsumoa, jazarpena, etab.

- Pribatutasunarekin edo konfidentziasunarekin lotutako arriskua. Besteak beste, pertsonaren bizitza pribatua urratzea edo datu pertsonalak desegoki erabiltzea sartzen dira atal honetan. Gai minberatzat hartzen dira DBLO legeak (Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa) babes-maila handiko taldean sartzen dituenak, edo diskriminazioa, estigmatizazioa edo kalte pertsonal edo familiarra eragin ditzaketanak. Besteak beste, honako hauek aipatu ohi dira:
 - Ideologia politikoa edo erlijiosoa
 - Bizitza sexuala
 - Legez kanpoko edo gizartearen aurkako jarduerak
 - Alkoholaren eta drogen kontsumoa
 - Buruko gaitzak edo arazo psikologiko larriak
 - Diskriminazio-jarrereri edo jazarpen aktibo nahiz pasiboari buruzko datuak
 - Tratu txarrak edo gehiegikeria fisikoa, psikikoa edo sexuala, aktiboa nahiz pasiboa

Talde-datuak biltzean edo taldeen audio nahiz bideo grabazioak egitean, soilik baimena eman duten pertsonen irudiek eta hotsek agertu behar dute, eta gainerakoak ezabatzeko edo ez identifikatzeko modua aurkitu behar da.

Pribatutasuna urratzea arriskurik handiena izan ohi da gure irakaskuntza-jardueretan, bereziki era zuzenean gerta daitekeenean; hala nola norberaren gorputza erabiltzen denean (modelo gisa aritzea, luzera, pisua eta abar neurtzea...). Espazio pertsonala inbaditzea maiz gertatzen da arteria-presioa hartzean, auskultatzean, hortz-haginen moldeak hartzean, aho-hortzen esplorazioan... baita kontaktu fisiko zuzeneko praktiketan ere (bihotz-biriketako bizkortze-maniobrak, fisioterapia-teknikak, etab.). Horiek denak pribatutasunaren urratze zuzena eragiten duten jardueretako batzuk dira, ikasle batzuk deseroso sentitzea eragin dezaketanak, batak bestearekin praktikatzeko eskatzen zaizkion. Izan ere, ulertzekoa denez, normalean ez dugu gustuko izaten pertsona arrotzek gu ukitzea eta gugana gehiegi hurbiltzea, eta gure espazioa inbaditzen badute, urduritu, haserretu edo izutu egiten gara. Ikaskideak badira ere (hau da, hitzaren zentzu hertsian arrotzak ez badira ere), eta ikasleak jakin badakien arren jarduerak mesede egingo diola bere prestakuntzari, egoera deserosoa izan ohi da, eta ikasle batzuek

uko egin diezaiokeite jarduera egiteari. Jakina, nork bere gorputza jarduera jakin batean erabiltzeak deseroso sentiaraz dezake; adibidez, ikasle gizen baten edo bere itxura atsegin ez duen pertsona baten kasuan. Era berean, kontaktu fisiko zuzeneko praktika batek ezinegonaren sor dezake asko izerditzen duen, halitosia duen edo besterik gabe lotsatia den pertsona batengan.

Oro har, honela sailka dezakegu pribatutasunarekin eta konfidentzialtasunarekin lotutako arriskua:

- Pribatutasuna urratzea (espazio pertsonala, kontaktu fisikoa...) edo norberaren irudia besteen aurrean erakustea.
- Datu konfidentzialak zabaltzea.
- Datu pertsonalak edo familiarak hedatzea; besteak beste, osasunari buruzkoak eta genetikoak.
- Talde erasagarrien arriskua. Prozedura bat arrisku handiko jarduera bihurtu daiteke talde erasagarri bati aplikatuz gero. Ikasleek talde homogeneo bat osatzen badute ere, subjektu erasagarriren bat egon daiteke: hala nola ezgaitasunen bat duen ikaslea, haurdun dagoena, etab. Kasu horretan, normalean arrisku minimokotzat hartzen den jarduera bat arrisku minimokoa izateari uzten dio talde jakin bati aplikatzean.

5.1.4. **Arriskua minimizatzea**

Arriskua minimotik gorakoa denean, arriskua txikitzeko mekanismoa aurkitu behar da, kasu bakoitzean. Praktika-mota asko eta arrisku-mota asko daudenez, ez da lan erraza mekanismo orokorrak ezartzea. Nolanahi ere, ideia bat edo beste ematen ahaleginduko gara.

Irakasleak hainbat mekanismo erabil ditzake:

- Ikasleak erabiltzen ez dituzten prozedurak bilatzea.
 - Ikasleen laginak edo datuak erabili ordez, identifikatu gabeko hirugarrenen laginak edo datuak erabil ditzaket.
 - Aukera eman diezaioket ikasle bakoitzari bere lagina erabiltzeko edo, berea erabili nahi ez badu, identifikatu gabeko hirugarren baten lagina erabiltzeko.

- Arrisku txikiagoa eta eraginkortasun bera izango duen beste prozedura bat bilatzea.
 - Adibidez, lagin biologiko bat behar badut eta listua erabil badezaket odola erabili ordez, metodo ez-inbaditzailea aukeratu dut.
- Prozedura mantendu arren haren aplikazioa aldatzea, arriskua txikitzeko.
 - Estres psikikoko metodoetan, tentsioa txikitzen duen sistema bat hauta daiteke; hala nola probaren iraupena txikitzea edo bitan zatitzea.
 - Jarduera zorrotzago gainbegiratzea edo irakasle-kopuru handiago batek gainbegiratzea, arazoak detektatzeko.
- Kaltea tratatzeko edo arintzeko sistema bilatzea, edo ezustekoak tratatzeko; hala nola patologien detekzio klinikoak, tratatu txar, jazarpen eta diskriminazio-egoeren detekzioa, etab.
 - Laguntza medikoa, psikologikoa edo soziala eskaintzea.
 - Aholkularitza juridikoa edo hezkuntza-aholkularitza eskaintzea.
 - Jarduera alternatiboak eskaintzea talde erasagarriari edo arrisku-taldee.

5.1.5. **Kalte-ordaina**

Dokumentu honetan, ez dugu kalteengatiko ordainaren gaia sakon aztertuko. Soilik adieraziko dugu UPV/EHUK dagokion aseguru-poliza harpidetu duela eta IIEBra jo daitekeela kasu bakoitza aztertzeko. Ohiko irakaskuntza- eta ikerketa-jarduera guztiek, aztertzen ari garen irakaskuntza-praktikek barne, dagokion estaldura dute, programazio akademikoan jasota badaude betiere.

5.2. **Boluntariorotasuna**

Ikerketa-arloan boluntariorotasuna oinarrizko elementua bada ere, gai honek ñabardura gehiago ditu irakaskuntza-praktikan.

Hala, ez dugu esan nahi inor jarduera bat egitera behartzen denik, baina sarritan derrigorrezko gisa agertzen da prestakuntza-planean, beharrezkoa titulu jakin bat eskuratzeko.

Arazoa ikaslearen parte-hartzean datza. Hau da, ikasleak parte hartzen duenean, elementu aktibo gisa ez ezik (irakasle baten gainbegiradapean, prestakuntza-helburuekin), baita elementu pasibo gisa ere (bere prestakuntzarako ere balioko duten prozedura jakin batzuk aplikatzen zaizkio).

Ikasleak subjektu pasibo modura erabiltzen dituen irakaskuntza-praktika bat, arrisku minimoa duena eta GIEB batzordeak eta, jarduera-motaren arabera beharrezkoa izanez gero, AOEB edo ABIEB batzordeak onetsia, derrigorrezko praktika gisa planteatu liteke, beste edozein irakaskuntza-jarduera bezala.

5.2.1. **Jarduera alternatiboak**

Arau orokor gisa, EZ da beharrezkoa jarduera alternatibo bat eskaintzea prestakuntza-planak derrigorrezkotzat duen irakaskuntza-praktika egin nahi ez duten ikasleei. Izan ere, ohiko ikasketa-planetan, normalean ez da alternatibarik eskaintzen derrigorrezko jardueretarako.

Hala eta guztiz ere, irakaskuntza-praktikaren arriskua minimotik gorakoa denean, komenigarria litzateke eskaintza hori egitea: adibidez, pribatutasuna ezinbestean urratzen denean eta urratze hori minimizatzeke mekanismorik ez dagoenean.

Jarduera alternatiboak helburu berberak izan behar ditu, gaitasunak eskuratzeari dagokionez, eta antzeko denbora eta ahalegina eskatu behar ditu. Gainera, lehen aukera gisa eskaintzen den irakaskuntza-praktikaren neurri berean ebaluatu behar da.

Ikasleak ez du inolako azalpenik eman behar ez jarduera alternatiboa aukeratzeko, ezta irakaskuntza-praktika bere borondatez noiznahi utzi eta bigarren jarduerara igarotzeko ere. Irakaskuntza-praktika hasieratik hurbil dagoen uneren batean uzten ez bada, bi jarduerak ebaluatu ahal izango dira, era proportzionalean bakoitzean erabilitako denborari dagokionez.

5.3. Informazioa eta baimen informatua

5.3.1. *Informazioa*

Ikasleak irakasgaiaren programa osoari buruzko informazio idatzia eskuratzeko aukera izaten du: helburuak, irakaskuntza-metodologia, egutegia, gaitegia, ebaluazio-sistema, etab. Batzuetan, praktikei buruzko informazio idatzi eta xehea ere hartzen du, programa konplexuetan bereziki.

Irakaskuntza-praktika egiteko unean, irakasleak edo praktikaren begiraleak berak ematen ditu azalpenak, ahoz, eta jarduera egiteko adostasuna isilbidezkoa izaten da.

Irakaskuntza-jarduera konplexutasun-maila jakin batekoa denean, edo arrisku-maila handikoa, baita jarduera alternatibo bat eskaintzen denean ere, komeni da ikasleari informazioa idatziz ematea, nahikoa denborarekin, ondo ulertu dela eta erabakia hartzeko denbora izan duela ziurtatzeko. Borondatezko praktiken kasuan, edo jarduera alternatibo bat hautatu daitekeenean, informazioa aldezturik eman behar da, ikasleak erabakitzeke aukera izan dezan.

5.3.2. *Baimen informatua (BI)*

Beharrezkoa da baimen informatu idatzia eskatzea? Hasteko, nahikoa litzateke isilbidezko adostasuna, eta horixe izan da ohikoa irakaskuntza-praktika guztietan, irakasleen eta ikasleen arteko konfiantza-harremana dela-eta.

Hala eta guztiz ere, arriskua minimotik gorakoa denean, komeni da baimen informatu (BI) idatzia eskatzea.

Jarduera alternatiboa eskaini behar denean, komeni da jarduera horretarako baimen informatu bat egitea, eta argi uztea ikasleak uko egin diola metodologikoki egokientzat hartzen den praktika egiteko eskubideari, eta bere borondatez aukeratu duela jarduera alternatiboa. Dokumentu horrek lehen aukera gisa eskainitako praktikari uko egin zaiola jasoko luke, praktika-mota, irakasgaia eta ECTS baliokidetasuna adierazita, jarduera alternatiboari buruzko azalpenekin batera: helburuak/esku-

ratu beharreko gaitasunak, praktika-motaren eta metodologiaren deskribapena, eta ebaluazio-sistema, kalifikazio globalaren ehunekoak barne. Helburuak eta kalifikazioaren ehunekoak berdinak izango dira errefusatu den irakaskuntza-praktikan eta onartu den jarduera alternatiboan.

5.4. Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna

PRIBATUTASUNA URRATZEA izan ohi da gure irakaskuntza-praktiketan sarrien sortzen den arazoa, irtenbide irudimentsuagoak behar izaten dituen.

Ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktiketan, kontuan izan behar da ziurrenik UPV/EHUren instalazioetan egingo direla, eskola-orduan, eta taldean denek elkar ezagutuko dutela, horrek dituen alde on eta txarrekin. Alde txarren artean, taldearen presioa aipatu behar da, jarduera jakin batzuetan parte hartzeko (norberak nahi ez badu ere), eta ikaskideei buruzko datuak ezagutzeko «jakin-mina».

Hori horrela izanik, pribatutasuna babesteko sistemak sortu behar dira: zenbat eta minberagoa izan gaia edo praktika-mota, orduan eta sistema zorrotzagoak. Kasu zehatzen arabera, praktikaren ardura duen irakasleak metodorik egokiena proposatuko du ikasleen pribatutasuna babesteko.

Adibideak:

- Saihestu ikasle batek beste bati lagin biologikoak hartzea edo gorputz-neurketak egitea. Lagina hartu edo neurketa egin behar bada, ikasle bakoitzak berea egin dezake, edo arlo honekin erlazio akademikorik ez duten beste ikasturte batzuetako ikasle boluntarioak erabil daitezke. Kasuaren arabera, ikasgelatik kanpo egin liteke neurketa (nork bere etxean), eta ikasgelara ekarri...
- Ez erabili familia-daturik proba genetikoak edo herentzia biologikoak probak egiteko. Asmatutako adibideak erabil daitezke.
- Aukeratu ikasleak bata bestearengandik bereizteko aukera ematen duten gela edo lokalak, ikasleek ikaskideen erantzunak ez ikusteko.
- Ikasleek elkar ukitzea eskatzen duten praktiketan (kirol-jarduerak edo fisioterapia-jarduerak), utzi bikotekidea edo taldea aukeratzeko,

erosoago egon daitezen, eta bereizi sexuen arabera. Erabili ikasle -kopuru egokia gainbegiratze-lana egiteko. Kasuaren arabera eta aurreikusten den pribatutasun-urratze mailaren arabera, egokia izan daiteke jarduera alternatibo bat eskaintzea.

Irakaskuntza-praktika hauek sortutako arazoek eta beste edozein praktikak sortutakoek berdintsuak izan beharko lukete datuen konfidentzialtasunari dagokionez. Irakasleek ikasleen datuak eskura ditzakete beren irakaslanari dagokionez, eta fitxategiak, beren segurtasun-sistemekin, jada sortuta daude eta maiz erabiltzen dira.

6. Ikasleekin edo haien lagin biologikoekin edo datu pertsonalekin eginiko praktika-motak

Ikasleekin eginiko praktiken inplikazio etikoak, metodologikoak eta legezkoak hobetu ulertzeko, eta aholkuak sinplifikatzeko, hainbat irizpideren arabera sailkatu ditugu praktikak:

- Praktikaren subjektu den ikaslearekin egiten den jarduera-mota.
- Irakasleen tutoretza-maila praktika egiten duen pertsonarekiko.
- Praktikaren subjektu aktiboa eta pasiboa; hau da, norik egiten duen praktika eta nor den esperimentazioaren subjektu.

Hiru irizpide horien arabera, ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktikak izan daitezke:

1. taula. Irakaskuntza-praktika motak

Sailkapen-irizpidearen arabeko taldea	Praktika-mota
I. Jarduera-motaren arabera	(1) Subjektuarekin eginiko interbentzio fisikoa edo psikikoa. a. Prozedura inbaditzailea. b. Prozedura ez-inbaditzailea. (2) Lagin biologikoak hartzea. a. Prozedura inbaditzailea. b. Prozedura ez-inbaditzailea. (3) Datu pertsonalak erabiltzea.
II. Tutoretza-mailaren arabera	(4) Tutoretza zorrotza behar duten praktikak (5) Maila ertaineko tutoretza behar duten praktikak (6) Tutoretza txikia behar duten praktikak

Sailkapen-irizpidearen arabera taldea	Praktika-mota
III. Praktikaren subjektu aktiboaren eta pasiboaren arabera	(7) Irakasle-ikasle praktika (IR-IK) (8) Nork bere buruarekin eginiko praktika (IK) (9) <i>Inter pares</i> praktika (IK-IK) (10) Hirugarrenekin eginiko praktika (IK-H) a. Behatzaile gisa b. Subjektu eragilea

6.1. I. taldea. Jarduera-motaren arabera

- Subjektuarekin eginiko interbentzio fisikoa edo psikikoa.
 - Prozedura inbaditzailea.
 - Prozedura ez-inbaditzailea.
- Lagin biologikoak hartzea.
 - Prozedura inbaditzailea.
 - Prozedura ez-inbaditzailea.
- Datu pertsonalak erabiltzea.

6.2. II. taldea. Tutoretza-mailaren arabera

6.2.1. *Tutoretza zorrotza behar duten praktikak*

Multzo honetako praktikak jarduera konplexuak dira, esperientzia-edo trebetasun-maila handia eskatzen dutenak, edo minimotik gorako arriskua dutenak, edozein arrazoiengatik minimizatu ezin izan dena.

Adibideak:

Praktika erakusleak muturreko adibidea dira. Irakasleak boluntario batekin egiten du praktika (ikasle bat, kasu honetan), eta beste ikasleek begiratu eta azalpenak entzuten dituzte. Horrela, adibidez, irakasleak erakuts dezake nola murriztu masailezur lokadura bat, orno zerbikalen manipulazio terapeutikoa, etab.

Beste kasu batzuetan, ikasleak egiten du praktika, baina irakaslearen kontrol zorrotzarekin; hots, irakaslea ikaslearen ondoan dago praktika osoan zehar, eta irakasle-ikasle proportzioa 1-1 da, edo 1-2 gehien jota. Hori horrela, esan liteke irakaslea dela jardueraren rol aktiboa bere gain hartzen duena, eta ez ikaslea, azken horrek ez baitu ia era autonomoan jarduten.

6.2.2. ***Maila ertaineko tutoretza behar duten praktikak***

Ikasleak dira praktika egiten dutenak, baina irakasleen agindu eta gainbegiratzeko zuzenarekin. Zenbat eta txikiagoa ikasleen esperientzia eta prestakuntza, eta zenbat eta handiagoa jardueraren arriskua eta konplexutasuna, orduan eta zorrotzagoa da tutoretza. Esperientzia hartu ahala, txikituz doa tutoretza.

6.2.3. ***Tutoretza txikia behar duten praktikak***

Praktika hauetan, arriskua txikia izan ohi da, edo ikasleek prestakuntza eta esperientzia nahikoak dituzte. Hortaz, nahikoa da tutorearen oniritzia, maiz jarduera bera amaitzen denean lortzen dena. Ikasleak era autonomoan aritzen dira ia erabat, praktika osoan zehar. Oro har, praktika errazak izan ohi dira, gradu amaierako lanetan, graduondoko ikasketetan, etab.

6.3. **III. taldea. Praktikaren subjektu aktiboaren eta pasiboaren arabera**

6.3.1. ***Irakasle-ikasle praktika (IR-IK)***

Irakasleak egiten du praktika, ikaslea subjektu pasiboa izanik. Irakasleak ikasle bat erabiltzen du jarduera egiteko, eta besteek begiratu egiten dute. Teknika konplexuak erakusteko erabili ohi dira, ikaskideen artean praktika jakin bat egin aurretik, askotan.

Adibidea: Heimlich maniobraren edo eskuzko terapia zerbikalaren erakustaldia, etab.

6.3.2. **Nork bere buruarekin eginiko praktika (IK)**

Ikasleak dira subjektu aktiboa eta pasiboa. Ikasle bakoitzak bere burua erabiltzen du praktika egiteko, edo laginak edo datuak hartzeko.

Adibidea: Ikasleak berak eginiko nortasun-*test* baten emaitzak interpretatzea.

6.3.3. **Inter pares praktika (IK-IK)**

Ikasleak dira subjektu aktiboa eta pasiboa. Ikasle bakoitzak ikaskide bat erabiltzen du praktika jakin bat egiteko, eta praktika hori berari egiten uzten die besteei.

Adibideak: Adibide asko aipa daitezke: fisioterapiako praktikak, erizaintzakoak (bendajeak nola egin), etab. Beste horrenbeste esan daitezke psikologiako praktika jakin batzuei buruz; ikasle batek *test* bat edo elkarrizketa kliniko bat egiten dio ikaskide bati, eta emaitzak interpretatzen ditu ondoren.

6.3.4. **Hirugarrenekin eginiko praktika (IK-H)**

Ikasleak subjektu aktiboak dira. Ikasleak ikasle ez den pertsona batekin egiten du praktika: pazienteak, boluntarioak, etab. Kasu hau, ohikoa osasun-zientzietako ospitale- eta klinika-praktiketan, azterlan honetatik kanpo utzi dugu. Askotan praktika erakusleak badira ere (ikasleek irakasleak eginikoa begiratu besterik ez dute egiten), beste jarduerak batzuetan ikasleak subjektu aktibo dira; hala nola historia klinikoak egitean, bizi-konstanteak hartzean, tratamendu errazak zuzenean aplikatzean, etab.

Ikasleekin egiten diren praktika gehienak hiru taldeetan sailka litezke, eta hainbat motatakoak ere izan daitezke.

Adibidez, ikaslearen familia-ezaugarri genetiko bat aztertzea (laginik hartu gabe) datu pertsonalak erabiltzen dituen praktika bat da (ikaslearen familia-datuak), tutoretza txikikoa, arrisku txikikoa izateagatik, eta nork bere buruarekin eginikoa (1. taula: Irakaskuntza-praktika motak: 3, 6 eta 8 motak).

Kirurgia handiko praktika kliniko bat interbentzio fisiko inbaditzailea da, tutoretza zorrotza behar duena, eta kasu gehienetan irakasleek zuzenean egina, hirugarren pertsona bat erabilia (paziente kirurgikoa), ikasleak begira dituela (1. taula: Irakaskuntza-praktika motak: 1a, 4 eta 10 motak).

Familia-gatazketarako bitartekaritzako graduondoko praktika bat, ikasleek ikasle boluntarioekin eginikoa, praktika psikiko inbaditzailea da, tutoretza ertaina edo txikia behar duena, graduondoko ikasleen esperientziaren eta prestakuntza espezifikoaren arabera, eta *inter pares* praktikatzat hartzen da, ikasleak direlako subjektu aktiboa eta pasiboa (1. taula: Irakaskuntza-praktika motak: 1a, 5 eta 9 motak).

7. Aholku orokorrak

Aholku orokorrak praktikaren konplexutasun eta arriskuaren arabera-koak dira. Aholku espezifikoei dagokienez, hurrengo atalean aztertuko ditugu xeheago.

Ondo diseinatutako praktika batetik abiatuta (ikasleak erabiltzea metodorik egokiena denean ikaskuntza-helburuak betetzeko), aholku orokor batzuk eman daitezke jardueraren konplexutasunaren eta arrisku-maila eta -motaren arabera.

7.1. Baliabide materialak eta giza baliabideak: nahikoak eta egokiak

Lokalak, altzariak eta oro har material guztiek egokiak izan behar dute arriskua ahalik eta gehien txikitzeko.

Adibidez, toki egokiak eta itxiak erabiltzea elkarrizketa psikologikoe-tan edo fisioterapia-interbentzioetan (intimitatea babesteko), biosegurtasun-neurriak, fitxategi konfidentzialak... kasu bakoitzaren arabera.

Irakasle-kopuruak ere egokia izan behar du, eta prestakuntza egokia izan behar dute, praktikaren tutoretza-lana egiteko eta gerta litezkeen gorabeherei aurre egiteko.

Jarduera-motaren arabera, komenigarria izan daiteke tutore gehiago edo gutxiago izatea, eta zaintza handiagoa edo txikiagoa. Horrek zerikusi handia du praktikak exekuzio-fasean duen arrisku-mailarekin. Hala, aipatu ditugun adibideekin jarraituta, fisioterapiako eskuzko terapia-saioak nolabaiteko arrisku fisikoa izan dezake, esperientziarik ez duen norbaitek teknika desegokia erabili eta indar gehiegi egiten badu, eta irakasleek zorrotz zaintzea eskatzen du horrek. Gauza bera esan daiteke detartraje-jarduerei buruz (aho-higienea), etab.

7.2. **Ikasleen alde z aurreko prestakuntza**

7.2.1. ***Prestakuntza tekniko orokorra***

Zenbat eta handiagoa praktikaren konplexutasuna eta hari lotutako arriskua, orduan eta beharrezkoagoa da ikasleen prestakuntza tekniko orokorra. Horregatik, praktika konplexuenak, edo trebetasun handiagoa eskatzen dutenak, azken ikasturteetan egin ohi dira, ikasleek esperientzia handiagoa dutelako jada problema errazen ebazpenean.

7.2.2. ***Prestakuntza tekniko espezifiko***

Ez da komeni irakaskuntza-praktikarik egitea ikasleek horretarako alde z aurreko prestakuntza egokirik ez badute. Behar izanez gero, prestakuntza osagarria eskainiko zaie, jarduera egin ahal izateko, esperientzia-edo prestakuntza-falta arrisku gehigarri izan ez dadin. Adibidez, zain-ziztadarako materiala eta teknika ezagutzen badira ere, komenigarria izan daiteke lehenbizi irakasleak hori nola egiten den erakustea, praktika egingo den lekuan eta erabiliko den materialarekin.

7.2.3. ***Prestakuntza etikoa eta lege-prestakuntza***

Kasuen arabera, beharrezkoa izan daiteke ikasleei jokaera etikoari buruzko oinarrizko nozio batzuk azaltzea, egingo den jarduerari lotuta.

Konfidentzialtasun-konpromisoa izan ohi da kasurik ohikoena, datu-mota jakin baten erabilerari lotuta. Nolanahi ere, ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktiketan, are garrantzitsuagoa izan daiteke ikaskideek beren borondatez parte hartzeko izan behar duten askatasuna errespetatzea eta pribatutasuna babestea. Hori horrela, kasu bakoitzean, zer prestakuntza espezifiko eskatu behar den aztertu beharko litzateke, sor litekeen arazo etiko motaren arabera.

8. Aholku espezifikoak

8.1. Irakasleek ikasle batekin eginiko praktikak, beste ikasleak begira daudela

Adibide modura aipa ditzakegu bizi-konstanteak hartzea, berpizte -maniobrak, larrialdietako arreta sanitarioa, etab.

8.1.1. *Arriskua/onura*

Arriskurik aipagarriena subjektuaren boluntariotasuna ez errespetatzea da (hertsadura edo eragin bidegabea). Izan ere, nekez egin diezaioke uko ikasle batek «boluntario» izateari, irakasleak eskatzen badio eta eskaera ikaskideen aurrean egiten badu.

Jarduera-motaren arabera, beste arazo batzuk ere sor daitezke; hala nola pribatutasunerako eskubidea urratzea. Kasuan kasu aztertu beharreko gaia litzateke.

Onurarik agerikoena, alde batera utzirik ikasle boluntarioak lortzeko aukera, beste ikasleen arreta erakartzeko erraztasuna da, ikaskide bat delako praktika egiteko erabiltzen den pertsona eta harekin identifikatuta sentitzen direlako.

8.1.2. *Badaezpadako neurriak*

Erazena ikastaldeko kiderik ez erabiltzea da, eta aurrez hitzartutako pertsona boluntario bat erabiltzea jarduera egiteko; batez ere, arrisuren bat dagoenean edo ikaslearen boluntariotasuna bermatu ezin denean.

Hori posible ez balitz eta jardueraren arriskua minimoa bada, nahikoa litzateke argibide egokiak ematea egin nahi den jarduerari buruz, ikasleei pentsatzeko denbora ematea eta, azkenik, boluntario bat eskatzea, ikaslerik bereizi edo nabarmendu gabe. Horrela, nahi duenak bere burua eskainiko du boluntario gisa.

8.2. Nork bere buruarekin eginiko praktikak

Nork bere burua erabiltzen du praktika egiteko edo laginak edota datuak hartzeko.

Adibidez: nork bere lagin biologikoak hartzea laborategi-probetarako (odol-taldea, DNA isolatzea, etab.); nork bere datu pertsonalak edo familiakoak hartzea eta/edo aztertzea; nork bere bizi-konstanteak hartzea ariketa fisikoa egin ondoren, etab.

8.2.1. *Arriskua/onura*

Arrisku orokorra (fisikoa, psikikoa, pribatutasuna, etab.) hirugarren pertsona bat erabiltzean baino txikiagoa da, subjektuak berak hartu duelako parte hartzeko erabakia eta zuzenean kontrola dezakeelako jarduera.

Ikasleak gogo handiagoz arituko dira jardueran beren datuak erabiltzen badituzte, salbuespenak egon daitezkeen arren. Konstanteak hartzea ikasleren batentzat gehiegizkoa izan den ariketa fisikoa egin ondoren, obesitatea edo ohitura ez-osasungarriak agerian uzten dituzten neurketak egitea, gizarte-ikuspegitik onargarriak ez diren jardueren, edo legez kanpokoen, adierazle diren datuak erabiltzea... beren datuak erabili nahi ez dituzten pertsonak atzera egitea eragiten duten jarduerak dira.

8.2.2. *Badaezpadako neurria*

Ikasleei informazio egokia ematea helburuari, jarduera-motari eta arriskuei buruz, nahikoa denborarekin, borondatez parte hartu nahi duten erabakitzeko.

Jarduerari edo nork bere datuak edo laginak erabiltzeari uko egiten zaionean, alternatiba bat eskaini behar da; hala nola hirugarren pertsona boluntario bat edo irakasleak emandako modelo estandar bat erabiltzea.

8.3. *Inter pares* praktikak

Ikasle bakoitzak ikaskide bat erabiltzen du praktika jakin bat egiteko, eta praktika hori berari egiten uzten die besteei.

Ikaskideen artean eginiko edozein motatako jarduerak sartzen dira multzo honetan.

Adibidez: hortz-haginen moldeak edo hatz-arrastoak hartzea; detar-trajeak; zain-ziztadak; lagin biologikoak edo gorputz-neurriak hartzea; datu pertsonalak aztertzea; proba psikologikoetako datuak eskuratzea eta interpretatzea; fisioterapia-ariketak egitea (eskuzko terapia eta beste era batekoak), etab.

8.3.1. *Arriskua/onura*

Arrisku orokorra (fisikoa, psikikoa, pribatutasuna, etab.) nork bere buruarekin eginiko praktketan baino handiagoa da, maila guztietan: boluntariorotasuna, jardueraren gaineko kontrola, pribatutasuna eta konfidentzialtasuna...

Ikasleek gustukoak dituzte *inter pares* praktikak, norberaren eta besteen akatsetatik ikasten delako, eta zalantzak partekatu eta argitzea eta iritziak trukitzea sustatzen delako, interbentzio zuzenagoko praktketan bereziki.

8.3.2. *Badaezpadako neurriak*

Aurreko kasuko badaezpadako neurri berberak hartu behar dira:

- Informazio egokia ematea eta parte hartu nahi ez duen ikaslearen erabakia errespetatzea.
- Jarduera alternatibo bat eskaintzea:

- antzeko ahalegina eta denbora eskatuko dizkiona ikasleari.
- onura akademiko bera izango duena, kredituetan edo puntuazioan.
- prestakuntza-arloan gaitasun berberak emango dituen.
- komenigarria litzateke dokumentu batean idatziz jasotzea irakaskuntza-praktikari eginiko ukoa eta alternatiba modura eskainitakoaren onarpena, praktika konplexuak edo kreditu askotakoak direnean (3 ECTS baino gehiago).

Gainera, beste arazo batzuk ere sor litezke, praktika-motaren arabera. Era askotakoak izan daitekeenez, egokia izan daiteke kasu espezifiko bakoitzaren azterketa eskatzea.

Badaezpadako neurri orokorrak:

Kontuan izanik konplexutasuna, arrisku-maila eta -mota eta ikaslearen prestakuntza, egokitu egin beharko dira:

- Erabili beharreko baliabide materialak.
- Tutoretza-maila.
- Ikasleari prestakuntza gehigarria eskaintzearen komenigarritasuna, jarduerari ekin aurretik. Prestakuntza hori teknikoa edo etikoa izan daiteke, maila orokorrean edo espezifikoan.

Badaezpadako neurri espezifikoak:

Arrisku orokorraz gainera, praktika-motaren arabera (fisikoa, psikikoa, etab.), *inter pares* praktketan:

- Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna, kideen arteko interakzioetatik.
- Boluntarioratasuna, taldeak parte hartzeko egiten duen presioetatik (presio erreal edo ez).
- Populazio erasangarria. Adibidez, eskuzko terapia-praktiketan, gizentasun-arazoak edukitzea, gehiegi izerditzea, gorputz-itxura gustukoa ez izatea... Edo psikologia klinikoko praktiketan, aurrerari psikiatriko pertsonalak edo familiarrak izatea.

Beraz, neurriak hartu behar dira faktore horiek minimizatu eta populazio erasangarria babesteko.

8.4. Hirugarren pertsonekin eginiko praktikak

Praktika ikastaldekkoa ez den pertsona batekin egiten da: pazientea, boluntarioa, etab.

Kasu konplexuena da. Adibidez, pazienteekin eginiko praktikak dira, Medikuntza, Odontologia, Psikologia eta antzeko ikasketetan.

Ikaslea ez da subjektu pasiboa, aktiboa baizik. Hortaz, azterlan hone-tatik kanpo gelditzen da. Praktika-mota honetan, ikasleek gutxieneko prestakuntza izan ohi dute, eta irakasleek zorrotz zaintzen dituzte. Gai-nera, araudi espezifiko bat erabiltzen da, batez ere pazienteekin eginiko praktikak dituzten espezialitate biosanitarioetan.

9. Aholkuen laburpena

9.1. **Ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktika guztietarako aholkuak**

9.1.1. *Praktikaren diseinua*

Ikasleak subjektu pasibotzat hartzen dituen irakaskuntza-jarduera bat proposatu aurretik, oinarrizko premisa batzuk hartu behar ditu kontuan irakasleak:

- Helburu nagusiak ikaslearen prestakuntza izan behar du; hau da, dagokion ikasketa-planean jasotako gaitasunen baten garapena.
- Gaitasun hori lantzeko, irakaskuntza-metodologiak egokiena izan behar du.
- Praktikaren diseinua ebaluatu behar da lehenik, ikasleak erabili edo ez erabaki aurretik.

9.1.2. *Ikasleen parte-hartze zuzenaren egokitasuna*

Populazio egokia osatzen dute unibertsitateko ikasleek egin nahi dutan irakaskuntza-praktikarako?

Litekeena da ikasleek zuzenean parte hartzeak mesede egitea ikaskuntza-prozesuari, baina baditu hainbat arrisku: besteak beste, jardueran parte hartzeko boluntarioratasuna edo pribatutasuna urratzea.

Kontu handiz ebaluatu behar dut planteatzen dutan praktikaren bidez prestakuntza-arloan lor daitekeen onura, kontuan izanik arrisku zehatzak.

Ikasleak, haien lagin biologikoak edo datu pertsonalak erabili gabe antzeko helburuak lortzen dituen beste jardueraren bat egonez gero, jarduera horrek izango du lehentasuna (animaliak edo agente biologikoak erabiltzen diren kasuetan bezala).

9.1.3. ***GIEB batzordeak irakaskuntza-praktika onartzea***

Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordeak onartu behar du nire proiektua?

Ez da ezinbestekoa, baina bai komenigarria.

Animaliekin edo agente biologiko eta genetikoki aldatutako organismoekin eginiko praktketan ez bezala (biosegurtasun-arau espezifikoak eta espresuki ebaluatu beharreko beste arau batzuk erabiltzen dituzte), ikasleekin eginiko irakaskuntza-praktikek ez dute etika-batzordeek kontrolatu beharreko erregulazio espezifikorik.

Nolanahi ere, irakasle askok zalantzak izan ohi dituzte, ikasleekin eginiko jarduera batzuk etikoki edo lege aldetik egokiak diren, eta praktikaren diseinuak prestakuntza-helburua betetzen laguntzen duen.

Irakasleak bere kasua planteatzen badio batzordeari, zalantzak argituko ditu eta aholkuak emango dizkiote bere praktikaren alderdi jakin batzuk hobetzeko.

Gainera, oniritzia jaso duten irakaskuntza-praktikek «barne-egiaztapen» moduko bat lor lezakete, azterketa espezifiko eta xehe bat gainditu ondoren. Egiaztapen hori urtero berrituko litzateke, ikasturte akademiko bakoitzean, edo praktikaren diseinuan aldaketa garrantzitsuak egitean.

9.1.4. ***Baliabide materialak, giza baliabideak eta prestakuntza-baliabideak egokitzea***

Ondo diseinatutako praktika batetik abiatuta (ikasleak erabiltzea metodorik egokiena denean ikaskuntza-helburuak betetzeko), aholku orokor batzuk eman daitezke. Nolakoak diren jardueraren konplexutasuna

eta arrisku-maila eta -mota, beharrezkoagoak edo ez izan daitezke aholku horiek.

9.1.5. ***Baliabide materialak: nahikoak eta egokiak: lokalak eta altzariak, material segurua, etab.***

- Irakasle-kopuruak egokia izan behar du, eta prestakuntza egokia izan behar dute, praktikaren tutoretza-lana egiteko eta gerta litezkeen gorabehereri aurre egiteko.
- Prestakuntza tekniko orokorra: ez da komeni praktika konplexuek aurreneko ikasturteetan egitea.
- Prestakuntza tekniko espezifikoak: beharrezkoa izanez gero, jarraibide espezifikoak eman behar dira jarduera jakin bat egiteko.
- Prestakuntza etikoa eta lege-prestakuntza: beharrezkoa izanez gero, hainbat arlotan; hala nola konfidentzialtasuna, pribatutasuna, boluntariorotasuna...

9.2. **Aholku espezifikoak praktika-motaren arabera**

Praktika-motaren arabera, eranskin batean bildu dizkizugu kontuan hartu behar dituzun alderdiak, eskuarki arriskuari, boluntariorotasunari eta pribatutasunari lotuak. Oinarrizko gatazka-puntuak dira.

Lau praktika-mota bereizten ditugu, arazo gutxien sortzen dituenetik arazo gehien sortzen dituenera.

Saia zaitez zure jarduera horietako batean kokatzen, badaezpadako zer neurri hartu behar dituzun jakiteko.

9.2.1. ***Praktikaren subjektu aktiboaren eta pasiboaren arabera***

1. Irakasleek ikasle batekin eginiko praktikak (ikasleak subjektu pasibo), beste ikasleak begira daudela

Teknika konplexuak erakusteko erabili ohi dira, ikaskideen artean praktika jakin bat egin aurretik.

Arriskuak

- Arrisku aipagarriena boluntariotasuna ez errespetatzea da, irakaslea denean eskaera egiten duena eta publikoan eta ikaskideen aurrean egiten duenean.
- Jarduera-motaren arabera, beste arazo batzuk ere sor daitezke; hala nola pribatutasunerako eskubidea urratzea. Kasuan kasu aztertu beharreko gaia litzateke.

Badaezpadako neurriak

- Errazena ikaslerik ez erabiltzea da, beste pertsona boluntario bat baizik. Hori ezinezkoa balitz:
- Jarduerari buruzko informazio egokia ematea, denbora ematea pentsatzeko (informazioa aurretik idatziz jaso bada ere) eta boluntario bat eskatzea, ikaslerik bereizi edo nabarmendu gabe. Horrela, nahi duenak bere burua eskainiko du boluntario gisa.

2. Ikasleak bere buruarekin eginiko praktikak (ikasleak subjektu aktibo eta pasibo), edo bere lagin biologikoekin edo datu pertsonalekin

Arriskuak

- Arrisku orokorra (fisikoa, psikikoa, pribatutasuna, etab.) hirugarren pertsona bat erabiltzean baino txikiagoa da, subjektuak berak hartu duelako parte hartzeko erabakia eta zuzenean kontrolatzen duelako jarduera.

Badaezpadako neurriak:

- Ikasleei informazio egokia ematea helburuari, jarduera-motari eta arriskuei buruz, nahikoa denborarekin, borondatez parte hartu nahi duten erabakitzeko.
- Jarduerari edo nork bere datuak edo laginak erabiltzeari uko egiten zaionean, alternatiba bat eskaini behar da; hala nola hirugarren pertsona boluntario bat edo irakasleak emandako modelo estandar bat erabiltzea.

3. Inter pares praktikak (ikasleak subjektu aktibo eta pasibo)

Ikasle bakoitzak ikaskide bat erabiltzen du praktika jakin bat egiteko, eta praktika hori berari egiten uzten die besteei. Ikaskideen artean eginko edozein motatako jarduerak sartzeko dira multzo honetan.

Arriskuak

- Arrisku orokorra (fisikoa, psikikoa, pribatutasuna, etab.) norik bere buruarekin eginiko praktiketan baino handiagoa da, maila guztietan: boluntariorotasuna, jardueraren gaineko kontrola, pribatutasuna eta konfidentzialtasuna...

Badaezpadako neurriak

- Aurreko kasuko badaezpadako neurri berberak hartu behar dira:
- Informazio egokia ematea eta parte hartu nahi ez duen ikaslearen erabakia errespetatzea.
 - Jarduera alternatibo bat eskaintzea:
 - antzeko ahalegina eta denbora eskatuko dizkiona ikasleari.
 - onura akademiko bera eskainiko duena, kredituetan edo puntuazioan.
 - prestakuntza-arloan gaitasun berberak emango dituena.
 - komenigarria litzateke dokumentu batean idatziz jasotzea irakaskuntza-praktikari eginiko ukoa eta alternatiba modura eskainitakoaren onarpena, praktika konplexuak edo kreditu askotakoak direnean (3 ECTS baino gehiago).

Gainera, beste arazo batzuk ere aurreikusi behar dira, askotarikoak izan daitezkeenak praktika-motaren arabera.

Kontuan izanik konplexutasuna, arrisku-maila eta -mota eta ikaslearen prestakuntza, egokitu egin beharko dira:

- Erabili beharreko baliabide materialak.
- Tutoretza-maila.
- Ikasleari prestakuntza gehigarria eskaintzearen komenigarritasuna, jarduerari ekin aurretik. Prestakuntza hori teknikoa edo etikoa izan daiteke, maila orokorrean edo espezifikoa.

Badaezpadako neurri espezifikoak: neurriak hartu behar dira praktika hauetan ohikoak diren arriskuak ahalik eta gehien txikitzeko.

- Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna, kideen arteko interakzio-gatik.
- Boluntariorotasuna, taldeak parte hartzeko egiten duen presioagatik (presio erreal edo ez).

- Populazio erasagarria, jarduera-motari dagokionez (gizentasuna, adibidez, ariketa fisikoko praktikan edo gorputz-itxurari loturikoetan, etab.).

4. Hirugarren pertsonekin eginiko praktikak (ikasleak subjektu aktibo)

Praktika ikastaldekora ez den pertsona batekin egiten da: pazienteak, boluntarioak, etab.

Kasurik konplexuena da, eta espezifikoki araututa dago.

Ikaslea ez da subjektu pasiboa, aktiboa baizik. Beraz, azterlan honek kanpo gelditzen da. Ikus 3. eranskinean praktika hauekin erlazionatutako puntu nagusietarako argibideak.

10. Praktikaren balorazioa etika-batzordean

Legearen arabera irakaskuntza-praktikek IIEBren onespenerik behar ez badute ere, batzorde horretara bidal daitezke jarduera-proposamenak. Horrek segurtasun handiagoa ematen du estandar etikoak betetze-ko orduan, gizakiekin edo haien lagin eta datuekin praktikak egitean.

Praktika berri bat diseinatu nahi duen irakasle batentzat, edo ordura arte eginikoa ikuspegi metodologikotik, etikotik edo legeetik egokia den edo hobetu egin daitekeen jakin nahi duenarentzat, haxe da UPV/EHUk eskaintzen duen bidea.

Irakaskuntza-jardueraren konplexutasunaren arabera, ikasleen parte-hartzeari dagokionez, eta bereziki 3 ECTS baino gehiago dituzten praktiken kasuan, komenigarria izan daiteke ikasleen ordezkariak batzordearen erabakian parte hartzea.

Horrela, oniritzia jaso duten irakaskuntza-praktikek «barne-egiaztapen» moduko bat lortuko lukete (UPV/EHUko IIEB batzordearen egiaztapena), azterketa espezifiko eta xehe bat gainditu ondoren. Egiaztapen hori urtero berrituko litzateke, ikasturte akademiko bakoitzean, edo praktikaren diseinuan aldaketa garrantzitsuak egitean.

GIEBren oniritzia duten eta UPV/EHUko ikasleekin egiten diren praktikak («irakaskuntza-praktika egiaztatuak») dagokion fakultate edo ikastegiko dekanok eta zuzendariei helaraziko zaizkie, baita Saileko zuzendariak eta Ikasleen Kontseiluak ere, jakinaren gainean egon daitezten. Horrela, praktika bati lotuta ohar, erreklamazio edo kexaren bat egin nahi duen edozein ikasle harremanetan jarri ahal izango da Etika Batzordearekin, IIEBren zuzendaritzaren bidez, bere Fakultateko Dekanotzarekin, Ikastegiko Zuzendaritzarekin edo irakaslearen Sailarekin berarekin.

Etika-batzordeari helarazi beharreko dokumentuen artean, Memoria eta ondoko zerrendatik beharrezkoak direnak egongo dira:

- Jardueraren memoria.

- Jarduera UPV/EHUtik kanpoko instalazioetan egiteko baimena.
- Lankidetzeta-hitzarmena irakaskuntza praktikoa UPV/EHUtik kanpoko instalazioetan eskaintzeko.
- Praktikari buruzko informazio-dokumentua.
- Irakaskuntza-gida eta/edo
- Dokumentu espezifikoa
- Jarduera alternatiboa onartu izanaren dokumentua eta/edo ikasleekin irakaskuntza-praktika egiteko baimen informatuaren dokumentua.
- Baimen informatuko beste dokumentu batzuk (praktikak hirugarren pertsonekin, etab.).
- Konfidentziasun-konpromisoko dokumentua.
- Beste batzorde batzuei jakinarazi izanaren dokumentua (AOEB, ABIEB, etab.).
- Beste batzuk (kasuaren arabera, zehaztu).

Ondoren, Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordeak (GIEB) erabiltzen duen praktika-memoriarako inprimakiaren edukia agertzen da, gizakiekin (UPV/EHUko ikasleak barne) eginiko irakaskuntza-praktiken baloraziorako.

11. Erreferentzia bibliografikoak

1. Fisher, CB «Evaluating Minimal Risk: Time to Adopt a Uniform Standard» Annual HRPP Conference, Washington DC November. 16 2006. URL: www.societyforscience.org/isef/rulesandguidelines (azken kontsulta 2013ko urria)
2. Unibertsitateko Ikasleen Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretua. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2010eko abenduaren 31, 18. zk., 109353-109380 or.
3. «Aspectos éticos de la intervención de estudiantes de la UAM como sujetos de investigación». Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ikerketarako Etika Batzordea. Ekaina, 2008
4. Robyn Hudson, JP et al «Código Ético para el Personal Académico del Instituto de Investigaciones Biomédicas», UNAM Universidad Nacional Autónoma de México, 2007
5. GIEB-UPV/EHU. López-Abadía I. (red) UPV/EHUko Ikasleak ikerketa-subjektu. Aholkuen dokumentua. IIEB-UPV/EHU. 2012. URL: http://www.ikerkuntza.ehu.es/p273-sheticct/es/contenidos/informacion/vri_activ/es_vri_cuei/publi.html#cuadernos (azken kontsulta 2013ko azaroa)
6. +High Level Group on the Modernisation of Higher Education «Report to the European Commission on Improving the quality of teaching and learning in Europe's higher education institutions», June, 2013.

I. ERANSKINA: Gizakiekin (UPV/EHUko ikasleak) eginiko irakaskuntza-praktikei buruzko txostena, GIEBrentzat

M11. TXOSTENA, GIEBrentzat: GIZAKIEKIN EGINIKO IRAKASKUNTZA-PRAKTIKA

IRAKASLE ARDURADUNA

Praktikaren ardura duen irakaslea (ebalatu beharreko praktika aurkezten duena) Izena eta saila. Helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa
Irakasgaiaren ardura duen irakaslea Izena eta saila. Helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa
Praktikan lankidetzan dabiltzan beste irakasle batzuk: Izena eta saila:

PRAKTIKAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Izenburua:
Irakasgaia: <ul style="list-style-type: none">• Nahitaezkoa / hautazkoa / bestelakoa• Irakasgaiaren kredituak• Praktikaren kredituak Praktika mota (klinikoa, ordenagailu bidezkoa, laborategikoa, landa-praktikak, bestelakoak) Praktikaren aurrez aurreko orduak, ikasleko
Ikasturtea:
Gradua, lizentzia, masterra, doktoregoa: Sail arduraduna: Ikastegia: Saileko Kontseiluan praktika onartu zeneko data: GIEB ERREGISTRO ZK.:

1. I. ZATIA: IRAKASKUNTZA-BALIOA ETA JUSTIFIKAZIOA

1.1. *Praktikaren irakaskuntza-justifikazioa*

Ikasleek zer ikastea nahi den deskribatu, zehatz-mehatz. Irakaskuntza-helburuak / eskuratu beharreko gaitasunak (zeharkakoak, moduluzkoak, ikasturtekoak edo beste batzuk)

--

1.2. *Gizakiak edo UPV/EHUko ikasleak baliatzeko justifikazioa*

Gizakiak baliatu gabe ere irakaskuntza-helburua modu eraginkorrean lortzerik ba al da?

BAI	EZ	Zergatik?
-----	----	-----------

UPV/EHUko ikasleak baliatuko dira?

BAI	EZ?
-----	-----

Horiek baliatu gabe ere irakaskuntza-helburua modu eraginkorrean lortzerik ba al da?

BAI	EZ	Zergatik?
-----	----	-----------

2. II. ZATIA: IRAKASKUNTZA-TALDEAREN PRESTAKUNTZA

2.1. *Gainbegiratze-lanetan diharduten langileen egokitzapena (prestakuntza, eskarmentua, ikasle kopuruaren arabera zenbat behar diren...)*

2.1.1. *Barneko gainbegiratze-lan zuzena (UPV/EHUko arduraduna)*

Praktikaren ardura duen UPV/EHUko irakaslea (barneko tutorea edo koordinatzailea): Izena eta saila Lankidetzan dabilzan UPV/EHUko beste irakasle batzuk: Izena eta saila

2.1.2. *Kanpo-erakunderen batean praktikak egin behar badira:*

Kanpoko gainbegiratze-lana (erakunde lankidea):
Beste erakunde bateko arduraduna (kanpoko tutorea):
Izena eta erakundea:
Zer prozeduraz arduratuko den:
Begiraleak (kanpoko tutorearen mendeko kanpoko langile lankideak):
Kopurua (eta identifikazioa, hala badagokio)
Gauzatu beharreko prozeduretan beharrezkoa den prestakuntza /
lan-eskarmantua
Zergatik aukeratu da erakunde lankide hau?

2.1.3. *Irakasleak eta gainbegiratze-lanetarako gainerako langileak:*

Zer prestakuntza espezifiko dute irakasleek eta gainbegiratze-lanetarako langileek, praktikarekin lotuta?
(Praktika motaren arabera; esate baterako, medikuak edo laborategiko teknikariak edo teknika horrekin lan egiten dutenak...) Deskribatu:

3. **III. ZATIA: IRAKASKUNTZA-BALIOZKOTASUNA ETA METODOLOGIA**

3.1. **Metodologia**

Diseinua (deskribatu): Zer egingo den, non, nola eta iraupena

3.2. **Eskuratutako gaitasunen EBALUAZIOA**

Deskribatu: Ebaluazio-metodoa (azterketa, lanak, etab.), ebaluazio-i-rizpideak, irakasgai barnean kalifikazioak duen ehunekoa, etab.

3.3. **Praktika hori deskribatuta ageri al da UPV/EHUREN gida edo irakaskuntza-programazioren batean?**

EZ
BAI (erantsi kopia)

3.4. **Ofizialki argitaratutakoaz gainera, praktikari buruzko informazio idatzi osagarria eskaintzen al zaio ikasleari?**

EZ
BAI (erantsi kopia)

3.5. **Ikasleak:**

3.5.1. **Ikasleek praktikarekin lotutako zer-nolako aurretiko prestakuntza teknikoa daukate?**

Deskribatu:
Emango al da prestakuntza osagarri espezifikorik?
EZ Zergatik?
BAI Deskribatu nork, nola eta zer azalduko duen:

3.5.2. **Ikasleek praktikarekin lotutako zer-nolako aurretiko prestakuntza etikoa daukate?**

Deskribatu:
Emango al da prestakuntza etiko edo legezko prestakuntza osagarri espezifikorik?
EZ Zergatik?
BAI Deskribatu nork, nola eta zer azalduko duen:

3.5.3. **Ikasle kopurua**

Praktika egiten duten ikasleen kopurua: ____
Gainbegiratzailerik edo begirale bakoitzeko ikasle kopurua: ____

3.6. *Lokala egokitzea*

Non egingo dira praktikak?

Lokalak betetzen al ditu praktika horiek gauzatzeko beharrezko segurtasun-baldintza guztiak? Deskribatu

Eta betetzen al ditu bestelako baldintzak? Esaterako, behar beste toki, material egokia, argiztapena... Deskribatu

4. IV. ZATIA: ALDERDI ETIKO ESPEZIFIKOAK

4.1. *Onura/arriskuen haztapena*

4.1.1. *Adierazi dagokiona*

Ikasleak praktiken subjektu/objektu direnean

Irakasleak ikasleekin egiten ditu praktikak?

Ikasleak bere buruarekin egiten ditu praktikak?

Ikasleek euren artean egiten dituzte praktikak (inter pares)?

Ikasleek hirugarrenekin egiten dituzten praktiketean (gaixoak edo ikasleak ez diren boluntarioak)

Behatzaile hutsa da

Parte-hartze aktiboa du

Deskribatu

Gizakiekin, haien laginekin edo datuekin egindako praktiketean

Metodo fisiko inbaditzailea erabiliko da? EZ BAI Deskribatu

Metodo psikiko inbaditzailea erabiliko da? EZ BAI Deskribatu

Norbanakoaren pribatutasuna urratu edo datu konfidentzialak erabiliko dira? EZ BAI Deskribatu

Talde erasagarriren bat izango ote den aurreikusita dago? EZ BAI Deskribatu

4.1.2. *Arrisku minimoa duen praktika da (eguneroko jardueren parekoa)?*

BAI

EZ

Zergatik?

4.1.3. *Arrisku minimotik gorakoa duen praktika da?*

BAI EZ Zergatik?
Arriskua minimotik gorakoa bada...
Zer neurri hartuko dira arriskua murrizteko? Deskribatu

4.1.4. *Praktikari begira erasagarria den talderik baldin bada...*

Aurreikusten al da neurri espezifikorik talde horientzat?
EZ Zergatik?
BAI Deskribatu

4.2. ***Boluntariorotasuna***

Nahitaezko praktika al da? BAI EZ
Aukerako beste jarduerarik eskainiko al da? (baldin eta arriskua minimotik gorakoa bada edo tartean subjektu erasagarriren bat bada)
EZ Zergatik?
BAI Deskribatu irakaskuntza-helburua / eskuratu beharreko gaitasunak, praktika eta metodologia mota eta baita ebaluazio-sistema ere (kalifikazio globalaren ehunekoa barne)

4.3. ***Informazioa eta baimen informatua***

4.3.1. *Praktiketako subjektu gisa ikasleak baliatzen dituen praktika (nork bere buruarekin edo inter pares)*

Idatziz jakinaraziko da?
EZ Zergatik?
BAI Deskribatu edo dokumentua aurkeztu
Praktikarako edo aukerako beste praktikarako baimen informatu idatzia jasoko da?
EZ Zergatik?
BAI Deskribatu edo dokumentua aurkeztu

4.3.2. *Hirugarrenekin egindako praktikak, ikasleak behatzaileak direla (esate baterako, praktikak ospitalean)*

Gaixoari edo boluntarioari jakinaraziko zaio ikaslea bertan izango dela?
BAI EZ Zergatik?
Gaixoari edo boluntarioari baimena eskatuko zaio ikaslea bertan egon dadin?
BAI EZ Zergatik?
Idatziz egin behar bada, dokumentua aurkeztu

4.3.3. *Hirugarrenekin egindako praktikak, ikasleak parte-hartzaile aktiboak direla*

Gaixoari edo boluntarioari jakinaraziko zaio ikasleak bertan izango direla?
BAI EZ Zergatik?
Gaixoari edo boluntarioari baimena eskatuko zaio irakasleen gainbegiratzearekin ikasleek tratatu dezaten?
BAI EZ Zergatik?
Nola eta zer jakinaraziko zaie?
Idatziz egin behar bada, dokumentua aurkeztu

4.4. *Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna*

4.4.1. *Behar al da nolabaiteko babesik datuen pribatutasun eta konfidentzialtasunerako?*

EZ Zergatik?
BAI Deskribatu

4.4.2. *Ikasleei emango al zaie pribatutasunari eta konfidentzialtasunari buruzko informaziorik edo prestakuntzarik?*

EZ Zergatik?
BAI Deskribatu

4.4.3. *Horien konpromisoa idatziz jasoko da?*

EZ Zergatik?
BAI Dokumentua aurkeztu

4.4.4. *Beharrezkoa al da baimen espezifikoa datu konfidentzialetara sartzeko (esate baterako, historia klinikora)?*

EZ	Zergatik?
BAI	Dokumentua aurkeztu

5. **V. ZATIA: DOKUMENTAZIOA, BAIMENAK, HITZARMENAK ETA INDARREAN DAUDEN BALDINTZA ARAU-EMAILEAK BETETZEA**

Adierazi dagokiona:

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | 1. UPV/EHUtik kanpoko instalazioetan prozedura gauzatzeko baimena |
| <input type="checkbox"/> | 2. UPV/EHUtik kanpoko instalazioetan praktikak egiteko lankidetzeta-hitzarmena |
| <input type="checkbox"/> | 3. Praktikari buruzko informazio-dokumentua |
| <input type="checkbox"/> | 4. Irakaskuntza-gida edo/eta |
| <input type="checkbox"/> | 5. Dokumentu espezifikoa |
| <input type="checkbox"/> | 6. Beste praktikaren bat onartzeko dokumentua edo/eta ikasleekin praktikak egiteko baimen informaturako dokumentua |
| <input type="checkbox"/> | 7. Baimen informaturako bestelako dokumentu batzuk (hirugarrenekin egindako praktikak, etab.) |
| <input type="checkbox"/> | 8. Konfidentzialtasun-konpromisorako dokumentua |
| <input type="checkbox"/> | 9. Beste batzorde batzuen txosten-dokumentua (AOBE; EBIBE, etab.) |
| <input type="checkbox"/> | 10. Bestelakoak |

II. ERANSKINA: IIEB batzordeen bileran ateratako ondorioak, UPV/EHUko ikasleekin egindako irakaskuntza-praktikei eta ikerketa-ebaluazioari buruzkoak (2012-05-31)

Nork aurkeztu behar du dagokion Batzordearen aurrean ikasleekin egindako irakaskuntza-praktika bat edo -proiektu bat, hark ebaluatu ahal izateko?

Ikerteta-proiektu bat bada, Ikertzaile Nagusiak aurkeztu beharko du.

Irakaskuntza-praktika bat bada, berriz, irakasgaiaren ardura duen irakasleak edo praktika zehatzaren arduradunak, baldin eta biak bat ez badira.

Batzordeari, hark ebaluatu dezan, praktika aurkeztu aurretik, dagokion Saileko Kontseiluak onartu beharko du; izan ere, Sailek dira euren irakasleek esleituta duten irakaskuntza teoriko zein praktikoagatik erantzuten azkenak.

Denak ados egonez gero Ikerketaren eta Irakaskuntzaren Etikarako Batzordeak (IIEB) ikasleekin egindako irakaskuntza-praktikak ebaluatu beharko lituzkeela, zein litzateke gure irakasleek Batzordeei praktikak bidaltzen hasteko bide egokia?

Helburu hori betetzeko moduari buruz askotariko iritziak daude: batzuek informatzea proposatzen dute, beste batzuek konbentzitzea, eta bada egokiena derrigortzea dela pentsatzen duenik ere. Azken horiek uste dute beste era batera ezinezkoa dela lankidetzeta lortzea, irakasleei lan-karga handiagoa ekarriko balieke horrek; eta beste gai batzuekin aurretik gertatutakoa ikusita, iruditzen zaie kasu hau ez litzatekeela beste-

lakoa izango. Alegia, borondatezko lankidetzak ez dela errealak. Helburua betetzeko iradokizunak⁶:

Informazioa eta kontzientziakzioa: informazio-jardunaldi orokorrak zein partikularrak antolatzea. Era honetako praktikak egiten dituzten Sailetara jo liteke, eta modu pertsonalizatuan eman informazioa zein aholkuak. UPV/EHUK ehun sailetik gora ditu, baina horietako askotan ez dira era honetako praktikak egiten.

Sustatzea: hainbat modutara egin liteke:

- Praktikaren berariazko aitorten baten bitartez, IIEBren aldeko txostenarekin; horri barne-publizitatea emango litzaioke: Dekanotzak, Ikastegiko Zuzendaritzak, Saileko Zuzendaritzak, etab. Lanbide-aitorpenerako barne-zigilu baten parekoa litzateke.
- Bestalde, gehiago sustatu liteke, aitorten hori lanbide-ibilbideko onura balitz; esate baterako, irakaskuntza-merezimendutzat jo liteke, nola soldataren osagarriekin lotutako gaietan, hala irakasleen plazetarako lehiaketetan aintzat hartzeko merezimendu gisa (adibidez, irakasleen irakaskuntza-lana ebaluatzen duten ikasleen inkestak).
- Beste era bateko onurak ere aintzat hartu litezke. Esaterako, esleitutako irakaskuntza-kredituak ehuneko egokian murriztea, praktikak era horretan aurkezteko egindako lan gehigarria konpentsatzeko.

Betebeharra: UPV/EHUren barne-araudi bat egin liteke, praktika hauen arduradunak diren irakasleak behartzeko GIEBren aldeko txostena lortzera; ikerketa-proiektuetarako dagoen derrigortasunaren pare.

⁶ Ez dira formula baztertzailak: Aldi berean eman daiteke informazioa eta sustatu; eta azkenik, praktika hauek egin aurretiko baldintza arau-emaile bihurtu.

III. ERANSKINA: 1 eta 2 ereduak

UPV/EHUK bere ikasleei eta jendeari oro har eskaintzen dizkien pare bat laguntza-zerbitzuren baimen informatuarekin lotutako bi dokumentu doaz erantsita, ikasleek praktika klinikoak egin ditzaten erabiltzen direnak.

Baimen-dokumentuetan erabaki bat hartzeko behar adina informazio egon beharko du jasota, UPV/EHUn gizakiekin praktika klinikoak diseinatzeko asmoa duenarentzat erabilgarriak izan daitezkeen datu garrantzitsu guztiekin.

1. eredua: Informazio-orria eta baimen informatua, UPV/EHUn PAZko laguntza eta praktiketarako

INFORMAZIO-ORRIA ETA BAIMEN INFORMATUA

1. INFORMAZIO-ORRIA

Zer da Psikologia Aplikatuko Zerbitzua (PAZ)?

Psikologia Aplikatuko Zerbitzua (PAZ) UPV/EHUKo zerbitzu bat da, unibertsitateko ikasleentzako prebentzio-programak egiten dituen eta orientazioa eta laguntza psikologikoa ematen dituen.

Unibertsitateko zerbitzua den aldetik, irakaskuntza-jarduerak ere egiten ditu Psikologia Fakultateko graduaurreko eta graduondoko ikasleekin, eta jakintza arlo horrekin erlazionatutako ikerketa-proiektuetan ere parte hartzen du.

Gainera, UPV/EHUKo Prebentzio Zerbitzuarekin elkarlanean ere aritu daiteke, dagozkion eskumenak eskuordetuta, Prebentzio Zerbitzuak hala eskatzen badio.

Zer eskaintzen du PAZko Laguntza Psikologikorako Zerbitzuak?

Ikasleentzako zerbitzua da, doakoa, Psikologia Klinikoko edo Osasun Psikologia Orokorreko espezialistek eskaintzen dutena.

PAZn ematen den laguntza psikologikoaren baitan ebaluazio psikologikoa, orientazioa eta hasierako aholkularitza sartzen dira, eta baita esku-hartze terapeutikoa ere, gehienez 8-10 saiokoa.

Kasu batzuetan nahikoa izango da, baina, beste batzuetan, UPV/EHUrekin harremanik ez duten beste zentro batzuetan tratamenduari jarraipena emateko gomendatuko da. Horretarako, laguntza psikologikorako zentro, zerbitzu eta profesionalen zerrenda bat egingo da, era inpartzialean eta gardenean, eta erabiltzaileak nahi duena aukeratu ahalko du.

Zer EZ da sartzen PAZko laguntza psikologikoaren baitan?

Erabiltzailea terapia psikologikoa egiten ari bada, PAZko laguntza psikologikoak EZ du terapia hori ordezkatzuko.

Zerbitzuaren balizko erabiltzaileek ulertu behar dute ez dutela jasoko beren kasuaren arabera egokitutako ezaugarriak eta iraupena dituen terapia oso bat. Aitzitik, aholkularitza, hasierako ebaluazioa, eta, hala badagokio, terapia-saio batzuk jasoko dituzte, baina baliteke gehiago behar izatea.

Erabiltzailea mediku-tratamendua edo tratamendu psikiatrikoa jasotzen ari bada, PAZko laguntza psikologikoak ez du tratamendu hori ordezkatzuko.

Mediku-tratamendua behar izan dezakeen nahasmendu bat hautematen bada, erabiltzaileari jakinaraziko zaio eta dagokion espezialistarengana joan dadin gomendatuko zaio.

Laguntza Psikologikorako Zerbitzuaren erabiltzaileentzako argibide orokorrak

Laguntza-planari dagokionez

- Garaiz iritsi behar da, eta etorri ezin denean, hitzordua bertan behera utzi behar da, 24 orduko aurrerapenarekin. Bulego eta terapeuta kopurua mugatua da, eta saioetara etorri ezean, beste pertsona batzuk artatzea eragozten da.

- Saio guztietara joan behar da, terapeutak adierazi bezala. Azaldu ezean, eta ondorioz, esku-hartzea atzeratzen bada, eraginkortasuna galduko du, eta ez tratamenduak ez Zerbitzuak ez dute behar bezala funtzionatuko.
- Tratamenduak emaitza onak izateko, terapeutak agindutako zeregin guztiak bete behar dira saio batetik bestera.

Irakaskuntza-jarduerari dagokionez

- Irakaskuntza-jarduera dela tarteko, erabiltzaileari baimena eska dakioko ikasle batek saioetan parte hartzeko, behatzaile gisa. Nolanahi ere, ikaslea terapeutak gainbegiratuko du beti, eta ez du esku-hartzeari buruzko inolako erabakirik hartuko. Ikasleak, terapeutak bezalaxe, konfidentzialtasun-betebeharra izango du. Erabiltzaileak berariazko baimena eman beharko du, idatziz, jarduera hau gauzatzeko. Baimenik ematen ez badu, bere tratamendu-planak EZ du inolako kalterik jasango.
- Baliteke saioren bat bideoz grabatzeko baimena eskatzea, irakaskuntza-materiala lortzeko helburuarekin. Horretarako, erabiltzaileak berariazko baimena beharko du, idatziz, eta betiere, nortasuna eta datuak isilean gordeko dira.

Ikerketa-jarduerari dagokionez

- Erabiltzaileari ikerketa batean parte hartzeko proposatzen bazaio, dagokion proiektuari buruzko informazioa eta azalpen zehatzak dituen dokumentua emango zaio. Dokumentu hori UPV/EHUko Ikerketaren eta Irakaskuntzaren Etikarako Batzordeak onartu beharko du. Erabiltzaileak berariazko baimena eman beharko du, idatziz, jarduera hau gauzatzeko. Baimenik ematen ez badu, bere tratamendu-planak EZ du inolako kalterik jasango.

UPV/EHUko PAZren asmoa da zerbitzu serio, eraginkor eta erabilgarria eskaintzea; beraz, arren eskatzen dizugu helburu hori betetzen laguntzeko. Zalantzaren bat baduzu edo argibideren bat nahi baduzu, galdetu iezaguzu.

Eskerrik asko.

2. BAIMEN INFORMATURAKO INPRIMAKIA

Erabiltzailearen identifikazioa (izen-abizenak; ikastegia; II, AZP edo ikaslea)

Terapeutaren identifikazioa (izen-abizenak eta elkargokide zk.)

Proposatutako laguntzaren deskribapena (helburuak, saio kopurua, etab.)

Espero diren onurak:

Egon daitezkeen arriskuak (esku-hartzea ez gauzatzearen ondoriozkoak barne).....

Izan daitezkeen arrisku espezifikoak

Beste aukera batzuk.....

Psikologoa zure esanetara dago, nahi duzunean informazio gehiago emateko.

PAZk Psikologiako ikasleen irakaskuntza praktikoan parte hartzen du. Zuk baimena eman dezakezu ikasle batek tratamenduko saioetan parte hartzeko, behatzaile gisa. Betiere, ikaslea terapeutak gainbegiratu-ko du. Baimenik ematen ez baduzu, tratamendu bera jasotzen jarraituko duzu.

EZ DUT ONARTZEN

ONARTZEN DUT

Edozein momentutan tratamendua bertan behera utz dezakezu. Horretarako, nahikoa da terapeutari erabakiaren berri ematea, beste azalpenik eman gabe, eta tratamendua zure borondatez uzten duzula sinatzea.

PAZko langile guztiek, praktiketako ikasleak barne, konfidentzialtasun-betebeharra dute. Zure datu guztiak historia klinikoan sartuko dira, eta historia klinikoa segurtasun handiko fitxategi batean gordeko da, PAZren ardurapean. Fitxategi hori laguntza-helburuekin bakarrik erabiliko da. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezereztatzeko eta datuen aurka egiteko eskubidea erabili nahi baduzu, UPV/EHUko Leioako Campuseko segurtasunaren arduradunarekin (DBLO) harremanetan jarri beharko duzu.

ADIERAZPENAK ETA SINADURAK

Sinatzaileak adierazten du informazio-orria eta baimen informatua irakurri eta ulertu dituela; eskatu dituen azalpenak eman dizkiotela eta haiekin gustura gelditu dela.

Era berean, adierazten du baimena ematen duela proposatutako laguntza-planari jarraitzeko. Azkenik, adierazten du badakiela nahi duenean tratamendua bertan behera utz dezakeela, eta horretarako nahikoa duela psikologoari bere erabakiaren berri ematea.

Erabiltzailearen onarpen-sinadura

Profesional arduradunaren sinadura

BAIMENA BALIOGABETZEA

Tratamendua norberaren borondatez uzteko sinadura eta eguna

Irakaskuntza-praktikak egiteko baimena baliogabetzeko sinadura eta eguna

2. eredia: informazio-orria eta baimen informatua garatzeko proposamena⁷, UPV/EHUren klinika odontologikoko laguntza eta praktiketarako

Klinika Odontologikoko Zerbitzuak jasotzera doan gaixo orori eman beharko zaio informazioa, eta egoera bakoitzerako baimena eskatu.

Gaixoari ematen zaion informazio orokorra eta espezifikoa eta hartzen joaten diren erabakiak klinikaren eta gaixoaren arteko komunikazio-prozesuaren zati dira. Prozesu horrek, gaixoaren autonomia errespetatzeaz gainera, indarrean dagoen legedia betetzen du (GAL 2002).

Baimen informatua izeneko dokumentuek edo Historia Klinikotan idatziz emandako baimenek informazioa eta sinadurak dituzte jasota. Klinikaren eta gaixoaren arteko komunikazio-prozesu egokirik egin ezean, eta ondo pertsonalizaturik egon ezean, prozesu horiek etikoki zein legez baliogabeak diren prozedura burokratiko bihurtzen dira.

Komunikazio-jarduera hori aurrera eramateko ikasleei laguntza eman-go dien arduradunak honako hauek egin beharko ditu: ahoz edo idatziz informazioa eman eta baimena eskatu, eta hori gaixo bakoitzarekin beti eta

⁷ UPV/EHUko Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Klinika Odontologikoko Zerbitzuan Baimen Informatua garatzeko lan-dokumentua (2013ko uztaila).

behar bezala egiten dela bermatu. Praktikaren ardurua duen irakaslea izango da, hain zuzen, arduradun hori. Irakaslea da, izan ere, gaixoari begira eman beharreko laguntza-prozesu zehatzaren azken arduraduna (informazioa ematea eta baimena eskatzea barne), eta baita ikasleari eta erakundeari begira praktikaren funtzionamendu egokiaren arduraduna ere.

UPV/EHUko Klinika Odontologikoan, arreta kliniko diagnostiko eta terapeutikoa izaten da, beti, Odontologiako graduoko eta graduondoko Praktika Programaren osagaia. Ondorioz, litekeena da gaixoarekin zuzeneko tratuan dabiltzanak profesional tituludunak izatea (UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak), horiek gainbegiratura jarduten duten ikasleak izatea, edo bietarikoak. Halaber, horrek dakar erabiltzaileak ordaindu beharreko kostua ohiko tarifena baino txikiagoa izatea, baina bide bereetik, proba eta tratamendu batzuk egin ezina. Gaixo guztiei eman behar zaie horren berri; ahal dela idatziz. Eta baldintza horietan hautatzeko dituen aukerak argi eta garbi azaldu behar zaizkio.

Graduko eta graduondoko ikasleek Odontologiaren arloan ikertzen ikasi behar dute. Behar-beharrezkoa da gaixoak jakitea ematen zaion laguntzaren eta egiten zaizkion proben helburua soil-soilik kliniko den edo horiek ikasleen etorkizuneko ikerketetan erabiliko diren; baita hori guztia zer baldintzetan egingo den ere, baimena emango duen ala ez erabaki dezan.

Klinika Odontologikoan ikerketak egin daitezke gizakiekin, euren laginekin eta datuekin. Klinika Odontologikoko gaixoen artean ikerketarako subjektuak biltzeko ezinbestean bete behar dira informazio- zein baimen-baldintzak, eta baita Ikerketa Biomedikorako Legean (IBL 2007) jasotako bestelako batzuk ere. Tartean, behar-beharrezkoa izango da Ikerketaren Etikarako Batzorde baten baimena (GIEB UPV/EHU).

Ikerketarako edo irakaskuntza-praktiketarako subjektu gisa ikasleak biltzeko, bestalde, beharrezkoa da IIEBK adierazitako baldintza espezifiko batzuk betetzea.

Gaixoari informazioa eman eta **baimena eskatu** beharreko egoerak

1. LAGUNTZA ODONTOLOGIKOAN

• ONARTUTAKO PRAKTIKA-PROGRAMAN PARTE HARTZEKO

- Informazio orokorra: Zer den eta zertarako balio duen praktika klinikoen programak, nork ematen duen laguntza, prestakun-

tza-aldian ote dauden, zer mailatan, eta UPV/EHUren betebeharrak hauek direla: besteak beste, gainbegiratze-lana, aseguru eta konfidentziasuna.

- Baimena: Adierazitako baldintzetan edo/eta gaixoak erabakitako baldintzetan edo mugekin, programan parte hartzeko hark emandako baimena jasotzea. .
- LAGUNTZA KLINIKO DIAGNOSTIKO EDO TERAPEUTIKOA EMATEKO
 - Informazio espezifikoak: Laguntza odontologiko zehatz bakoitzari buruz (zer teknika diagnostiko edo terapeutiko aplikatu behar dioten, noiz, nola, zergatik, eta abar; alegia, ohiko informazio kliniko praktikoa).
 - Baimena: Gaixoak baimena ematen du jardun diagnostiko edo terapeutiko zehatz hori egin diezaioten
- PRAKTIKA-PROGRAMAN IRAKASKUNTZA-MATERIALA BILTZEKO
 - Informazio erantsia (hala dagokionean): Bere historiako datuak, argazkiak, datu analitikoak eta laguntza klinikorako ikastaroan lortutako hondar odontologiko edo biopsikoak, etab.; betiere, graduako eta graduondoko praktika klinikoetarako programako irakaskuntzarako erabiliko direla eta erabileran izango dituen anonimizazio-baldintzak, doakotasun-baldintzak, etab. zehaztuta.
 - Baimena: Gaixoak baimena emango du bere datuak, RX argazkiak edo lagin klinikoak klinika odontologikoko praktika-programetako irakaskuntza-praktiketan erabiltzeko. Ahal den orotan, irakaskuntza-helburuetarako beharrezkoa den materiala kodetuta edo anonimizatuta erabiliko da. Baimen hori aukerakoa izango da, eta ez du loturarik izango laguntza-baimenarekin; esan nahi baita, gaixoak baimena eman ahal izango du arreta kliniko jakin bat jasotzeko, baina baimena ukatu, bere material biologikoa edo datu pertsonalak egiten ari den irakaskuntza- eta laguntza-praktikatik kanpoko irakaskuntza-helburuetarako erabiltzeko. (Informazio hori dagokion laguntza-prozedurarako baimen-eskaerarako orri berean txertatu ahal izango da, lauki batzuk jarrita, modu independentean baimena emateko aukera izateko).

2.- PRESTAKUNTZA, BARNEKO IKERKETA-PROIEKTUETAN

- MATERIALA BILTZEKO EDO PROZEDURAK, INKESTAK, ETAB. GAUZATZEKO IKASLEEK EGINDAKO IKERKETETAKO GAIXOEI BURUZ

- Informazioa: Bere historiako datuak, argazkiak, datu analitikoak eta laguntza klinikorako ikastaroan lortutako hondar odontologiko edo biopsikoak, etab. erabiltzeko aukera orokorra; betiere, praktika klinikoetarako programako ikerketarako, alegia, ikasleek graduan eta graduondoan ikertzen ikas dezaten erabiliko direla, eta erabileran izango dituen anonimizazio-baldintzak, doakotasun-baldintzak, etab. zehaztuta.
- Baimena: Gaixoak baimena ematen du bere datuak, RX argazkiak edo lagin klinikoak klinika odontologikoko praktika-programetan egindako ikerketetan erabiltzeko. Ikerketarako baimena beti emango da idatziz, eta oro har EZ da txertatuko laguntza-baimenean. (Gradu amaierako, master amaierako edo doktorego amaierako proiektuei buruzko informazio-orri orokor bat egin daiteke, baina kasu bakoitzerako baimen-orriak proiektuari buruzko informazio espezifikoa jaso beharko du, eta ezinbestekoa izango da GIEBk onartuta egotea).

3.. KLINIKAKO GAIXOAK, HORIEN LAGINAK ZEIN DATUAK BALIATUTA, ODONTOLOGIAKO IKERKETA-PROIEKTUAK EGINGO DITUZTEN UPV/EHUko IRAKASLE ETA IKERTZAILEEK informazio eta baimen informatu espezifikoak eman beharko dituzte. Horiek guztiak, hain zuzen, Ikerketaren Etikarako Batzorde batek (IEB), IBL 2007, ebaluatu eta baimendutako BI dokumentu batean bildu beharko dira, proiektuarekin batera. UPV/EHUn, zehazki, GIEB da batzorde hori.

- http://www.ikerkuntza.ehu.es/p273-sheticct/es/edukiak/informazioa/vri_ceish/es_vri_eti/batzordea.html

4. ODONTOLOGIAKO IKASLEAK PRAKTIKETARAKO EDO IKERKETARAKO SUBJEKTUAK DIRENEAN, lehendik deskribatutakoez gainera, bestelako baldintza espezifikoko batzuk ere beharko dira.

- UPV/EHUko ikasleak, ikerketarako subjektu gisa

- UPV/EHUko ikasleak, irakaskuntza-praktikaren subjektu gisa (prentsan)

AHOLKUAK

1. PROZEDURA ESTANDARIZATUA

Klinika odontologikoak funtzionamenduarekin lotutako ezaugarri bereziak ditu; horrenbestez, laguntzarekin, irakaskuntzarekin eta ikerketa-rekin lotutako baimen informatuak eskuratzeko prozedura estandarizatuak eduki behar du.

2. LANERAKO ETA JARRAIPENERAKO TALDEA

Prozedura horiek eta dagozkion dokumentuak garatzeko, lanerako eta jarraipenerako talde bat sortzea proposatzen da, dokumentu horiek gauzatzeko eta beharrezko informazio guztia jasotzen dutela bermatzeko, ikerketa zein irakaskuntzarako subjektuek eta gaixoei beharrezko datu guztiak erabakiak har ditzaten. Nola UPV/EHUko IIEBk, hala GIEBk talde horrek eskutatutako laguntza eskaini ahal izango dute.

3. INFORMAZIOARI ETA BAIMENARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

Gure testuinguru akademikoan agerikoa da ikasleek, eta hala bada-gokio, baita irakasleek ere, behar-beharrezkoa dutela praktikan informazioa emateko eta baimena eskatzeko prozedura gauzatzeko moduari buruzko prestakuntza.

4. GAIXOENTZAKO INFORMAZIO BEREIZIA

Gutxienez, klinika odontologikoaren funtzionamenduarekin lotutako hiru oinarritzko alderdietako informazio bereizia ezarri beharko da:

1. Irakaskuntza- eta laguntza-praktika:
 - a. Era honetako laguntzaren eta eskaintzen diren zerbitzuen berezitasunari buruzko informazio orokorra
 - b. Gaixo bakoitzari egin beharreko prozedurari buruzko informazio espezifikoa
2. Irakaskuntza-materiala eskuratzeko: Klinikarako bertarako bada (bertako irakasle eta ikasleentzat) eta ez bada utziko edo ez bada bestelako erabilerarik emango, laguntza-baimenerako dokumentu berean sinplifikatu ahal izango da

3. Ikerketa: Hemen, araudia askoz ere zorrotzagoa da. Informazio espezifiko eta laguntzazkoaz bestelako baimen-orri bat sortu beharko da. Proiektu bakoitzean GIEBk onartu egin beharko du BI dokumentua

IIEB WEB-orrian (www.ehu/IIEBD) dago jasota BI dokumentuak behar bezala osatzeko beharrezko informazio guztia. Batik bat Koadernoetan:

- Gizakiekin egindako unibertsitate-ikerketarako baimen informatua
- Jardunbide egoki zientifikoak. Ikerketa Biomedikoaren Alderdi Etikoei buruzko III. Jardunaldiak
- Etika, ikerketan eta proiektuen ebaluazioan
- UPV/EHUko ikasleak, ikerketarako subjektu gisa
- UPV/EHUko ikasleak, irakaskuntza-praktikaren subjektu gisa (prentsan)
- Kaltea bermatzea

Eta osasun-laguntzarako baimen informatuari buruzko UD 4 OCW unitate didaktikoan. URLa: <http://ocw2010.ehu.es/file.php/89/bioetika/bioetika/azterketarako/materialak/index.html>